

Herririk Herri |4|
Enplegua sustatzeko, 13 lanpostu
sortu gura ditu Durangoko Udalak

Erreportajea |16-17|
Maiatzaren 21eko grebagaz bat egin
daben sindikatuekin hitzordua



Amalurra |26|
Zuhaitz Eguna, zerua behatzeko
irteera eta ibilbide gidatuak Toki-Alain

Krisia ardura nagusi Maiatzaren Lehenean

> Maiatzaren Leheneko mobilizazioetan
parte hartzera deitu dabe sindikatuek.

> Langileen eskubideen aldeko ekitaldi
gehienak hiriburuetan izango dira.

10



Azken hilabeteotan sindikatuek mobilizazioak egin ditue; tartean, LABek martitzenean Durangon egindakoa. K. Aginako

2009ko aurrekontuak jeltzaleen babesagaz onartu ditue

Abadiño • Independienteek aurkeztutako aurrekontuari baiezkua emon deutso EAJk. Gaur egungo krisi ekonomikoagaz "aurrekontu barik ezin dela egon" argudiatu dau Axier Garate zinegotzi jeltzaleak aldeko botoa emoterakoan. Ezker abertzaleak kontrako botoa emon dau.

2

Irudi korporatibo barriaren aurkezpena egin dau Udalak

Elorrio • "Iraganeko baloreak errespetatzen dituen diseinu modernoa" sortu guran, irudi korporatibo barria aurkeztu dau Udalak. Irudi barria Juan José González bexilologoak egindako azterketan oinarritu dabe. Elorria eta gaztelua dira armari barriko elementu nagusiak.

3

'Munduaren bira doan'-en gidoilari

KULTURA • Durangaldeko lagun bi izan dira joan zen astean estreinatu eben *Munduaren bira doan* marrazki bizidun filmaren gidoilariak: Unai Iturriaga eta Edorta Barrietabeña. Azkenagaz izan dogu berbaldia.

13

Igoera hatz puntekin ikutzen dau Sasikoak

KIROLAK • Elorriokori derbia irabazita eta Anclaren zein Kenciren porrotak aprobetxatuz, igoera esku-eskurajari jako Sasikoari. Asteburu honetan bertan lortu leikie Ohorezko A Mailarako txartela aurkariak huts egiten badabe. Bestela, hurrengo asteburuan erabakiko da liga: Sasikoa-Ancla, Landakon.

25

• Iurreta

Bixente Kapanaga asteburuetan itxi daien sinadurak biltzen

6

• Berriz

Berrizburuko futbol-zelaiko belar artifiziala aldatuko dau Udalak

7

• Mallabia

Marixelen jaiak Areitio auzoan

6



IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoak (0 eredu):
Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
Zientziak eta teknologia
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kalitateko Hezkuntza
Orientazio pertsonalizatua
Heziketa euskalduna
Irteera eta ekintzak
Teknologia berriak
Ingurumen naturala
Talde txikiak

Olaburu, 3 48215 Iurreta Tel.: 94 681 04 61 e-maila: 015090aa@hezkuntza.net www.orobiogoitia.net

HERRIRIK HERRI >

▣ ABADIÑO

Independienteek eta EAJk adostu eta onartu ditue aurrekontuak

Hile bian jardun dabe alderdi biek negoziatzen

Igazko maiatzeko udalbatzar batean botazituen oposizioak atzera Talde Independienteak urte haretarako proposatutako aurrekontuak. "Gobernu Taldea 13 zinegotzitik 8 bazterrean itzita dabil, abadiñar botoemaileei bizkarra emonda": halan arrazoitu eban ezker abertzaleak igazko aurrekontuen kontrako botoa. Atzo izandako batzarrean be jarrera bera izan dau ezker abertzaleak. 2009 urterako aurrekontuen aldeko botoa emon dabe jeltzaleek, aldiz, atzoko batzarrean.

"Udalaren funtzionamendua oztopatu gura izan barik eta erantzukizunez" jokatu dabela dinoe jeltzaleek

Legegintzaldiaren bi urteetan, "Talde Independiente ez da gai izan aurrekontu proiektu bat adostu eta onartzeko", nabarmendu dau ezker abertzaleko Basauri zinegotziak, eta Independienteak, "governatzen barik agintzen" dabilzela dino. Udalaren bestelako funtzionamendu baten

aldekoakei dira eurak, eta "2009ko udal aurrekontuen proiektua onartzea bazterketa eta agintekeria babestealitzakelako eta beste udal eredu baten alde gagozelako" bozkatu dabela kontra dinoe ezker abertzaleko ordezkariak.

Hilerria erabarrituko dabe

Talde Independienteak eta EAJk bi hilabeteotan egindako batzarretan negoziatu eta adostutako aurrekontu proposamenean (atzalderdi bi horreen botoekin aurrera egin eban proposamenean) jasotzen dituen inbertsino nagusietako batzuk dira hauek: hilerrian lanak egiteko 500.000 euro bideratzea, Matienako eskolan barrikuntzak egiteko beste 500.000 euro eta Zelaieta eskolarako 200.000, eta San Andres kalean lanak egitera 425.000 bideratzea.

"Udal kudeaketak dakarren erantzukizuna aintzat hartzen dogulako, aurtengo aurrekontuak negoziatu egin doguz Gobernu Taldeagaz", azpimarratu dau Garate jeltzaleen bozeroaleak. "Udalaren funtzionamendua oztopatu barik", elkarlanerako apostua egin dauela talde jeltzaleak nabarmen-



Atzo eguerdian egin eben aurrekontu proposamena udalbatzarrean. I.E.

du gura izan dabe. Negoziazino horretan, "esperientzia" ipini dauela EAJk azpimarratu dau Garatek, eta "egungoa lako krisi egoera batean aberastasuna sortuko daben egitasmoak burutzea beharrezkoa" dela. Krisi egoeran, "interes politikoen gaineratik, gizartearen ongizatea izan behar da oinarri", azpimarratu dau EAJk. ■ I.E.

Hilerrian eta Matienako eskolan barrikuntzak egiteko, 500.000na euro bideratzea aurreikusi dabe

Zelaietako eskola handitu beharra ikusten dau EAJk

Inplikazino handiagoo eskatu deusie alkatetzari

Zelaietako herri eskola txiki geratu dela eta hobekuntza lanetarako bideratutako diru-kopurua beste ekingintza batzuetarako erabili dauela Gobernu Taldeak salatu dabe hedabideetara bidalitako oharrean jeltzaleek. Gaiagazko "alkatearen eta Gobernu Taldea-

ren interes falta" sumatu dabela, gobernu taldeari inplikazino handiagoo eskatu deusie. Espainiako gobernutik jasotako dirulaguntza Zelaieta eskolako aterpean inbertituz, jolasleku gune handiagoo izango dela nabarmendu dabe. ■ I.E.

▣ GARAI

Kanpai-erlojua aldatu eta barria ipiniko dabe elizan

25 urte inguru daroaz oraingoak eta, egoera onean ez dagoenez, aldatzea erabaki dabe

Elizako kanpai-erlojua aldatzea erabaki dau Garaiko Udalak, gaur egun dagoenaren egoera aztertu ondoren. Erloju horrekazken boladant funtzionamendu arazoak daukazela eta, sistema barria ezarriko dabe.

Hasiera batean erlojua konpontzea pentsatu eben, baina barria ipintzeagaz alderatuta "garesti" iritetzen eban, Gontzal Sarrigoitia alkatearen arabera. Bere ustez, "konpontzea ez zen errentagarria".

Hain zuzen be, konponketak 1.650 euroko aurrekontua dauka, gitxi gorabehera. Erloju barria instalatzea, oster, 2.550 euroren

bueltan dabil. Udal ordezkariaren arabera, "aldea ez da handia", eta "sistema barria ipintzeak merezi dauela pentsetan dogu".

Instalazino barriagaz, aginte bidezko zentral ordulari batek automatizaziorako aukera emongo dau, beste hainbat funtzinogaz batera. Horretaz gainera, kanpaiantzako mailu elektronikoa be ipiniko dabe. ■ M.O.

Automatizaziorako aukera emoten dau, beste hainbat funtzinogaz batera

▣ ATXONDO

Baso-lurretan dagozen baserriak barrizteko baimenen erizpideak

Eusko Jaurlaritzaren lurzoruaen legea aplikatzeko modu egokiaren bila

Gaur egun baso-lur lez araututa dagoenetan orain 30 edo 40 bat urtetik bertan behera itzita dagozen baserriak barrizteko baimenak arautzen dituen Eusko Jaurtaritzaren lurzoruaen legea aplikatzeko, zenbait erizpide orokor zehazten dituen txostena osatu eben orain hilabete batzuk Udaleko batzordean.

Gobernu Taldeak dinonez, "txaletak eraikitzea baino hobea dela uste dogu baserriak barriztatzea, baina oso ondo araututa egon behar dauen esparrua dela be uste dogu". Baserrien jatorrizko izaera ez aldatzea ei da helburua. Baserriak barrizteko eskaria

Baserria barrizteko baimena emon ala ez erabakitzeo, Jaurlaritzako teknikari baten eritzia eskatu eben jeltzaleek

Argazkiak eta barrizteko proiektua eskatzen deuseez, esaterako, baserria barrizteko eskaria egiten dabenei

egiten dauenari eraikinaren argazkiak, hainbat dokumentu eta barriztatze-proiektua eskatzen deuseez. Udaleko arkitektoaren baiezkooen ondoren eroaten dabe udalbatzarrean, plenoak lan-baimena emon daian. Baserriaren jatorrizko tamaina eta ezaugarriak mantetzen direla segurtatzea da arauon helburua, Cobos alkateak dinonez.

Barrizte eskari horreetako bat izan zen udalbatzarrean, eta Gobernuaren aldeko eta oposizioaren kontrako bozka jaso eban. Jaurlaritzako teknikari baten baiezkooa barik ez dabela baimenen alde egingo dinoe jeltzaleek.



ELORRIO

Armarri barriak modernotasuna eta historia uztartu gura ditu

Irudi korporatibo barria aurkeztu dau Udalak

Gaztelua eta elorria: horreek dira Elorrioko Udalak aurkeztu dauen armarri barriko elementu nagusiak. Juan José González bexilologoak egindako ikerketatik abiatuta, EPS enpresak nortasun grafikoaren diseinua egin dau.

Aurrerantzean Udaleko gutun-azal, paper, dokumetu, ibilgailu eta sustapenerako gainerako elementuek irudi hori eroango dabe.

Niko Moreno alkatearen berbetan, betiko armarrria aldatzeko erabakia hartu dabe "transmisinoan historiak garrantzi handia daukalako". Gaineratu dauenez, "historia gure iragana da, baina baita aurrera begirako ikuspuntua be". Irudi korporatibo barriko aurkezpenean alkateak jakitera emon dauenez, irudi barri batek "hobe-kuntzarako, aurrerako eta gerorako bidea" erakusten dau. Udal

ordezkariaren berbetan, "kudeaketa estrategiko batean komunikazio korporatiboak daukan garrantziak ohartu gara".

Juan José González bexilologoak Elorrioko armarrrien historiaren azterketa egin dau

"Transmisinoan historiak garrantzia handia daukalako" aldatu dabe irudi korporatiboak, alkateak dinonez.

Azterketa sakona

Juan José González bexilologoak egindako azterketaren arabera, gaztelua eta elorria hiribilduaren Erdi Aroko zigiluan agertzen dira. "Elorria Elorrio izenagaz lotuta



Elorriarrek Udaleko arlo guztietan irudi barria ikusteko aukera izango dabe. Iban Gorriti

dago, eta gotorlekua populazioaren egituraren zeinua izango litza-ke", argitu dau Gonzalezek. "Zelai gorrian, zilarrezko gaztelua, sablean mazonatua eta argitua, elorri berde batez kargatua erdian eta gazteluaren ondoan".

Irudi barriagaz, Elorrio Erdi Aroko hiribilduaz gainera, "erakunde modernoak" be badela islatu gura izan dabe

Diseinu barria

Irudi korporatiboaren diseinua EPS Comunicación enpresak egin dau. Azaldu dabenez, "iraganeko baloreak errespetatzen dituen diseinu modernoak" sortzea izan dabe helburu. ■ J.G.

• DBH (B eta D ereduak)

• GELA EGONKORRA (B eta D ereduak)

• BATXILERGOAK

- Arteak (D ereduak)
- Giza eta Gizarte Zientziak (A eta D ereduak)
- Zientziak eta Teknologia (A eta D ereduak):

 - Zientzia eta Teknika
 - Osasun - Zientziak:

Aukera: Hirueleduna ingelesez

• ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA

• HEZIKETA ZIKLOAK

- Erdi mailakoa:

 - Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D ereduak)

- Goi mailakoa:

 - Gorpuz eta Kirol Jardueren Animazioa (D ereduak)

• ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

- Kirol Irakaskuntzak:

 - Mendi Kiroletako eta Eskaladako Teknikaritza (Arratsaldeetan)

- Beste modalitate berri batzuk:

AURREMATRIKULAZIO DATAK

Batxillergoa: maiatzaren 4tik 8ra

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango BH

institutua Durango

Institutuan, jakina!!

Frai Juan de Zumarraga, 23 • 48200 DURANGO (Bizkaia)

Tel.: 94 657 10 60 - 94 681 73 25 • Fax: 94 681 02 58 • e-posta: info@durangokoinstitutua.com • web: www.durangokoinstitutua.com

DURANGO

Txiki eta Otaegiri eskainiriko plakak kendu egin ditue, epaitegien aginduz

Bilboko Administrazioagazko Auzietako 3. Epaitegiak Txiki eta Otaegiri erreferentzia egiten deutesen plaka bi erretiratzea agindu deutso Udalar, agentziek zabaldu dabenez, Dignidad y Justiciaren eskariz. Aitziber Irigoras alkateak dinonez, Aste Santu inguruan jaso eben autoa, eta plakak kendu egin ditue. Beste azalpenik ez dau emon.

Udaletxearen alboan eta Santa Ana plazan zegoen plakak kentzea eskatu dabe epaitegiak

Udaletxearen alboan eta Santa Ana plazan zegoen sinboloen "zuhurtazuneko jasotzea" agindu dau epaitegiak; ebazpenak "garrantzia txikikotzat" jo ditu Udalararen alegazioak eta "adierazgarritzat" korporazioaren isiltasuna. "Biktimen eskubideen kontrako erasotzat" jotako sinboloak ez kentzeagaitik "pasibitatea" aurpegiatu deutso Udalar. ■ A.B.

"Erantzukizuna" eskatzeko "serio" gobernatu behar dela dino PSE-EEK

"Erantzukizuna eskatzeko era serio, arduratsu eta eraginkorrean" gobernatu behar dela dino PSE-EEK, eta oposizioak Udalarren jarduera "trabatzeko" dauela esatea "ardurabakokeriatzat" jo dau: "Eurak dira irregulartasunez gobernatzen dihardueenak, besteoi erabakitzeke legezko eskubidea trabatuz", dinoe EAJren erantzukizun eskariaren aurrean.

PSE-EEren ustez ez da jokabide "arduratsua" oposizioari "laguntza" eskatzea, "krisi egoeraren aurrekontua ateratzeko akordioak lortzeko gai izan ez eta eragin sozial handiko alde bakarreko erabakiak hartu direnean". Egoeragaz bat, "lehentasunak adosteko beste taldeekin egon barik aurrekontua zersail eta egitasmotan murriztu" erabakitzea be leporatu deutse EAJri. ■ A.B.

PSE-EE: "Ez da jokabide arduratsua orain oposizioari laguntza eskatzea"

Enplegua sustatzeko beste 13 lanpostu sortu gura ditue

Gizarte Ekintza sustatzeko diru gehiago bideratuko dau Gobernu Taldeak, eta horretarako Udaleko beste sail batzuetan aurreztuko dabe dirua

INEM-Tokiko Korporazioak egitasmoaren eskutik 13 lanpostu barri sortu gura ditu Gobernu Taldeak, eta horretarako 279.258 euroko diru-laguntza eskatu dau. Enplegua sortzeko erakunde eta instituzioekin bideratu gura daben lankidetzan batu dabe Udalak izan leikezen preminei lanbako bitartez erantzuteko aukera emoten dauen Durango 2009 Enpleguaren Osoko Plana.

Lau hiri-agente, berehalako jarduerarako taldea —ofizial bat eta hiru peoi— eta lokalen azterketa eta zerrendatze-lanagaz jarraitzeko hiru lanpostu —koordinatzailea, administraria eta deliniantea— sortu gura ditue; %40 falta da zerrendatzeko. Durangaldeko Behargintzagaz koordinatuta, "enplegu orientaziorako itxarrote-zerrenda murrizteko" Ekonomia, enplegu eta formazio sustapenerako teknikaria kon-

tratatu gura dabe, eta komertzio teknikaria be bai; denek sei hileko kontratua izango leukie, Aitziber Irigoras alkatearen berbetan.

Aldundiagaz "laster zehaztuko" daben eskualderako lankidetzak akordioa lotu gura dau Gobernu Taldeak, eta Durangaldeko Mankomunitateagaz eta Behargintzagaz Lehiakortasunaren Poloan jardun, orain arteko bidea-

Lankidetzan jardun gura dabe Aldundiak, Mankomunitateak zein Behargintzagaz

INEM-Tokiko Korporazioak egitasmoaren eskutik sei hileko kontratuak sortu gura ditue, 279.258 euro eskatuta

ri eutsi eta hori "indartu" gura dabe; metalgintzan, betetzeko produktu eskaera potentzialak aurkitu gura dira. Lotu bako ekarpen ekonomikoa egingo dabe.

Gizarte klausulak

Bestalde, Udalak egindako kontratuetako gizarte-klausuletan "sakonduz" eta gizarteratze-enpresei lekua eginez, bazterketa arriskuan edo baztertuta dagozenez eskaini gura deutsee lana.

Enplegu faltaren ondorioak "arintzeko" abiatu ditue neurriok. Horrez gainera, gizarte-zerbitzuak "sendotu" eta Gizarte Ekintza "sustatu" gura dabe. "Mantendu eta sendotu beharreko babesare horretara" diru gehiago bideratu gura da —tardean, gizarte-larrialdietarako laguntzetara—, beste sail batzuetan aurreztuz; "ahal denik eta sarerik indartsuen izateko". ■ A. Basauri

ZALDIBAR



Santamañezarrera igoera eta luntxa Castet Egunean

Apirilaren 26an izan zen 72 urte lehenago Errepublikako gobernuaren kontra altxatutako militarrei aurre egitearren bizia emon eben 40 miliziano eta gudari omentzeko antolatutako XVII. Castet Eguna. 1937an borroka latza izan zen Santamañezar tontorrerainoko igoeran behe-lainoa eta euria izan ziren. Menditik bueltan Castet elkartean batu ziren ekitaldira eta hamaiketakora bertaratutako lagunak.

Prezio tasatuko etxeen ordenantza aztergai

Etxebizitzen jabeekin eta batzarrerara joan diren herritarrekin izan zen atzo Idoia Mendiolarai

Atzo, arratsaldeko 19:00etan lehenengo eta ordu bete geroago bigarrena, Etxebizitza Tasatuen Ordenantza lantzeko deitutako batzarra gidatu eban Idoia Mendiolarai alkateak, Udaletxeko batzar aretoan.

Eskola inguruan eraikitzen dabilzen etxebizitzen lehenengo sektoreko etxebizitzen dozena bat jaberekin batu zen lehenengo, orain hiru asteko udalbatzarrean alderdi guztiek aho batez onartu eben ordenantzari buruzko azalpenak emoteko.

Orain hiru aste, apirilaren 8ko udalbatzarrean, Udalak aho batez onartu eban prezio tasatu-

ko etxebizitzak eta udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzaren barri emon eta zalantzak argitzeko deitu dabe orain batzarra. Zuzenean gaiagaz lotuta dagozen jabeenean zein herritar guztiei zabalduetako batzarrean be Javier Aldamiz-Etxebarria Udaleko aholkulari juridikoak be hartu dau parte, Mendiolarai alkateagaz batera. ■ I.E.

Eskola inguruan eraikitzen dabilzen etxebizitzen dozena bat jaberri ordenantza barria azaltzeko deitu dabe batzarra

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

URXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel: 94 681 50 17

katerin ardoak
inaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

Gremioen gida



Altzarien Zaharberritzea

Txingoka Zaharbarrikuntza

• Sitsaren tratamendua •

Altzariak eta zurezko osagai arkitektonikoak zaharberritzen ditugu

Tel.: 659 746 499 • Zornotza

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMONTA ETA KONPONKETA • TB • SOINUA • BIDEAK • IRRATIA
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITU BHEZ • ALABMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic



Iturgintza



Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behe, 3. sotoa
Sakelakoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 81 58
Iurreta

Baimendun
Instalatzailerak

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Gas

CIAL-UME

gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurreta, 7 - IURRETA Komaratu kalea, 2-A - DURANGO
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 92 50

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax
ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA
Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea
Zurezko egiturak
Barrualdea diseinatzea
Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

greinbiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN OINTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMONTA ETA EZARPENAK

Barne Dekorazioa

ibazabal, 3A behe, 1D
48200 Durango/ Birkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373

a-metz
[barne]diseinua

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erretformak
Gremioen
koordinazioa
Altzariak
Osagarriak

www.a-metz.com

HEMEN AGERTU

GURA BADOZU
DEITU

94 621 79 02

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 608 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

IURRETA



Txarto zegoen asfaltoa aldatu dabe 10-15 metroan. A.Basauri

Bixente Kapanaga asteburuetan ixtea aztertuko dabe

Zapatu eguerditik domekara arte kalea trafikoari ixtea eskatuz 300 bat sinadura batu ditue herrian

Zapatu eguerditik domekara arratsaldera arte Bixente Kapanaga kalea oinezkoentzat mugatzea eskatuz 300 sinadura inguru aurkeztu ditue Udalean. Herri ekimenez sortutako eskiera horren aurrean Iñaki Totorikaguena alkateak argitu dau aukera hori Hirigintza Batzordean aztertu eta erabaki beharko dela; dena dela, aukera hori aurretik be azterzen hasita zegozela gaineratu dau.

Tellituko aparkalekua erabiltzeko aukera be bermatuz, Amilburu plazara heldu baino apur bat aurrerago aztertu dabe Bixente Kapanaga kalea trafikoari moztea. Beti be asteburueta mugatuko litzake, eta Askondoko biribilguneraino legoke itxita. Halan be, Totorikaguena gogorazau dau 2-3 garaje partikular be badagozela hor, eta Zubiaurre kaleak be

Bixente Kapanagara irtetzen dauela. "Beraz, Zubiaurre ixtea be eskatuko leuke. Abantaila eta desabantailak aztertu behar dira, eta gai horreei be irtenbidea topatu". Alkateak, baina, ez dau begi txarrez ikusten proposamena: "Trafikoa txikituko litzake eta oinezkoendako gunea handia sortu".

Asfaltoagaz arazoa

Bixente Kapanagan jarritako asfaltoagaz sortutako arazoak konpondu ditue, bestalde, asteon. "Fabrikazintatik txarto etorri den asfaltoa aldatu da 10-15 metroan", alkateak argitu dauenez. ■ A.B.

Gaia Hirigintza Batzordean aztertu eta erabakiko dela nabarmendu dau alkateak

OTXANDIO

Plazatik Kultur Etxerako zatia konpontzen hasi dira asteon

Espainiako Gobernuak Otxandio Udalari Tokiko Inbertsionetarako 209.000 euro emon deusaz. Diru horregaz, Kultur Etxearen eta Enparantza Nagusiaren artean dagoen ingurua konpontzen hasi dira asteon. Aritz Otxandiano alkateak azal-

Tokiko inbertsionetarako diru-laguntzagaz plazako zati bat konpondu gura dabe

Plazako zati hori atontzeko proiektuak 209.000 euroko aurrekontua dauka

du dauenez, "plaza osoa konpontzeko proiektu bat dago, baina zatika egiten gabiltz". Hiru hilabete lanok amaituta izatea aurreikusit dabe udal arduradunek. "Inguru horijaietarako behar den moduan egon daiten gura geunke", dino alkateak. ■ J.G.

Autoaren erabilera txikitu gura dabe, joan-etorriak partekatuz

EBk aurkeztu eta gainerako alderdi guztiek onetsi daben ekimena da

Iurretako Udalak autoaren erabilera arduratsua sustatzeko asmoa daukan ekimena abiatu dau. Toki berera maiz joan-etorrian dabilzenei (lanera, unibertsitatera...) ibilbide bera egiten daben beste iurretartatzuk ezagutzeko eta lanera elkarregaz joateko aukera eskainiko deutse EBren proposamenez sorturiko zerbitzu barriak.

Bitartekaritzalana www.iurreta.org gunean zabaldu daben atal barriak errazten dau. Han 'Kotxean elkarrekin joan' atalean sartu eta norbere datuak itzi leitekez joan-etorrien gaineko zehaztasunen barri emonda. Erregistratuz gero, edonor ibili daiteke datu base horretan bilatzen.

Ekimenagaz herritarrei joan-etorrietarako alternatiba barria eskaini gura deutsee. Beste abantaila bi be azpimarratu ditue: kutsadura txikitu eta gunea publikoen erabilera hobetuko dau. "Bilbon eta Gipuzkoako hainbat herritan probatu dabe, eta emaitza onak emon ditu", azaldu dau Jose Luis Zubillaga Ezker Batuako zinegotziak: "Eskualdetik kanpora zein eskualdean bertan mogitzen direndako egokia izango dela itxaroten dogu".

Oraingoz zerbitzu hori kudeatzen dauen enpresaren guneko sare nazionalean izena emon daben lagunak agertzen dira Udaleko webgunean. ■ J.D.

Udalari 1.000 euroko kostua eragin deutso ekimenak: 700 sistema ipintzeak eta 300 urte osoko mantenuak

Harrera ona badauka, eskualdeko beste herrietan ildo bereko proposamenak aurkeztuko ditu EBk

MAÑARIA

Herritarrek liburuak trukatu egingo ditue Liburutegian

Hilabete honetatik aurrera esku-ragarri izango dira Liburutegian martxan ipini daben herritarren arteko trukerako eroandako liburuak. Apirilean zehar, ekimenean parte hartu gura izan daben guztiek, gainerako herritarrei lagatzeko prest dagoen liburuak eroan ditue Liburutegira. Batutako liburuekin zerrenda bat osatu eta gura dabenek maileguan hartu ahal izatea da egitasmoaren funtsa. ■ I.E.

Parte hartu daben herritarrek eroandako liburuak maileguan itziko ditue

IZURTZA

Tuareg herriari buruzko hitzaldia maiatzean

Maiatzaren 9rako antolatu dau Bitaño kultur elkarteak tuareg herriari buruzko hitzaldia eta ikus-entzunezko emonaldia. Bitaño elkarteko kide den eta Mali eta Nigerrera hainbat bidaiaria egin dituen argazkilaria izango da, 18:30etatik aurrera, jubilatuen elkartean berbaldia eskainiko dauena. *Los hombres azules, mito o realidad* deitu dauen emanaldian, bidaietan egindako argazkiak eta tuareg herriari buruzko azalpenak tartekatuko ditu hitzaldiaren emaileak. ■ I.E.

Bidaietan egindako argazkiak eta tuareg herriari buruzko azalpenak tartekatuko ditue

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

ETORRIKO ZARELA JAHINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna | **MAIATZAK 21 - 17:30** osteguna *2.zikloa*

ARRASATE-MONDRAGON | AULA MAGNA | Tel.: 943 73 96 29 // bgueireru@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna

ORATI | AULA MAGNA | Tel.: 943 71 80 09 // egarate@eteo.mondragon.edu

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna *2.zikloa* | **MAIATZAK 21 - 18:00** osteguna

IRUN | AULA MAGNA | Tel.: 943 63 91 29 // loizartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata *2.zikloa*

ESKORRIATZA | AULA MAGNA | Tel.: 943 71 41 57 // sarera@ihuzei.mondragon.edu



BERRIZ

Berrizburu futbol-zelaiko belar artifiziala aldatu egingo dabe

Aurten hainbat jokalarik lesionatu dira zelaiaren egoera txarragaitik

Badira 12 urte Berrizburun belar artifizialeko zelaia estreinatu ebenetik. Bere sasoian, inguruetako zelairik txukunena izan zen, baina denpora hareek joan dira. Zorua gastatuta dago eta, batez be, gogor; ondorioz, jokalariek arazoak ditue jokatzeke orduan. Horregaitik, Udalak 140.000 euro bideratu ditu zoru barria ipintzeko.

Udalak 144.400 euroko atala aurreikusi dau futbol zelaiaren belar artifizial barria jartzeko

Udan hasiko ditue lanak, eta datorren denboraldi hasierarako prest egongo da: "Aldatzeko sasoia dela uste dogu. 10 urteko bermea gaindituta dago, erabilera handia izan dau eta lesinoak gehitzen doazela esan deuskue", dino Jabier Azpitarte alkateak. Zoru barriak kautxuzko oinarria izango dau, eta horrek jokalarien ibiliak malgutuko ditu.

Aurtengo denporaldian hainbat jokalarik arazoak izan ditue zelaiaren egoera txarraren ondorioz: "Zelaiaren egoerak asko eragin deutse bost-sei jokalariri Aki-lesen tendoiari. Zorua urratuta eta gogor dago eta orpoek asko



Ikusten den moduan, zelaia egoera desegokian dago.

Berrizko entrenatzaileak adierazi dauenez, "aurten bost-sei jokalarik lesionatu dira zelaiaren egoera txarragaitik"

sufritzen dabe. Beheko taldeetako entrenatzaileekin be komentatu izan dot kontua eta eurek be antzeko arazoak sarritan izan ditueela esan deutse", azaldu dau Nikasio Galan Berrizko futbol taldeko entrenatzaileak. ■ J.D.

MALLABIA

Gazte eta helduentzako jaiak antolatu ditue Berano Txikin

Eguraldi txarrari aurre eginez antolatu ditue aurten Berano Txiki auzoko jaiak. Aterrunek lagundu ebanen, hainbat gaztetxo hurreratu zen umeen jolasetan parte hartzera. Lapiko-apurtzeak, urtero legez, arrakasta handia izan eban. Tradizioari eutsiz jai horregaz emon deutse hasiera Mallabiko auzoetako jaiari.



I. Gorriti

Marixelen jaiak ospatuko ditue Areitio auzoan

Donien-atxa jasota, atzo hasi zitueen jaiak Areitio auzoan. Goizeko ekitaldien ondoren, gaur arratsaldean umeentzako jolasak eta asto-probak izango dira.

Domekan, goizeko meza ren ondoren, Igone Amestikeuskal kantak eskainiko ditu, Mikel Nuñez piano-jotzaileagaz. Jarraian, herri-kirol saioa izango da: aizkoran jardungo dabe Eñaut eta Goñik, Bixente eta Floresen kontra. Urdaxek harri-jasotzen egingo dau. Arratsaldean asto-probak egongo dira; gero bildotsa zotz egingo dabe.

Hitzaldia

Ana Oiarzun psikologoak *Egune-roko gatazkak konpontzeko* hitzaldia emongo dau Jubilatuen Etxean, maiatzaren 6an 16:00etan. ■ P.M.

DURANGALDEA

AHTaren diru-kontuak argitu daiezen eskatu dau Elkarlanak

AHTaren "benetako" diru-kontuak argitzea eskatu deutso AHT Gelditu! Elkarlanak Jaurlaritzari, eta "zergadun orok Euskal Ya egiteko aurreikusi diren 6.341 milioi euroko diru publikoari aurre egin beharko deuskue ezkutatzeari izteko" erronka jo. Hego Euskal Herriko hiriburu, herri handi eta zuzenean kaltetutako herrietako etxeetara, Jaurlaritzaren eta Nafarroako gobernuaren izenean bidalitako gutunagaz "izututakoei" barkamena be eskatu deutse; AHTa finantzatzeko EAeko adin nagusiko orok 4.859 euro ordainduko zituela zinon. Halan be, datuok ez direla gezurtatu gogoratu dabe. Maiatzaren 9an Iruñean deitu den manifestazinarako Zornotza, Iurreta, Durango, Abadiño, Atxondo eta Elorrioren, ohiko lekuetatik autobusak irtengo dau 15:00etan.

IURRETA

Eguraldiak lagundu ez arren jai giro ona izan dabe Oromiñon

Eguraldia ez dabe lagun izan, halan be, jai giro onean ospatu ditue Oromiñon bertako jaiak. San Marko eguna, zapatua, izan eben egun handia eta, besteak beste, jai batzordeak eraturako umeendako dantza eta sorpresek ikusle eta parte-hartzaile ugari batu zitueen. Tortilla txapelketak eta Luhartzek girotutako erromeriak ez eben hutsik egin; ezta auzo-bazkariak eta briska txapelketak be ez. Domekan Mikel Deunako dantzariak jardun eben.



J. Fernandez

DURANGO

Bisitari gehiago Aste Santuan

Aste Santuan 96 bisitari hurreratu da aurten Turismo Bulegora; igaz baino 57 gehiago. Turismo Bulegoko arduradunen ustez, Aste Santua igaz beste aurreratu ez izana izan leiteke bisitari kopuruaren hazkundearen arrazoiatariko bat. Zehaztu dabeenez, 31 eta 70 urte bitarteko bisitariak izan dira nagusi (%81,25), eta batez be Katalunia eta Espainiatik etorri dira.

Bartzelonakoak izan dira bisitari gehienak (18) eta, gero, madrildarrak (16). Palentzia, Pontevedra, Tarragona, Teruel, Lleida, Badajoz, Mallorca, Zamora eta Valladolideko turistak be izan dira Durangon bertan eta inguruan turismoa egiteko asmotan. Mexiko eta Frantziatik be etorri dira. Bizkaiko 11 lagun, Gipuzkoako hiru, Nafarroako bi eta Arabarako bat hurreratu dira Turismo Bulegora; baita Durangoko 13 be.

Maiatzaren Leheneko jaiak ospatuko dau gaur Herria auzo elkarteak

Urteroko hitzorduari hutsik egin barik, kalejira eta txistulariekin hasi dabe gaur maiatzaren 1a dela-eta antolatutako jaiak. Zikloturista martxa hasiko dabe 11:00etan, 11 urtetik beherakoek; 11:30ean gainerakoek. Kriskitin dantza taldeak saioa eskainiko dau 12:30ean, eta tute txapelketa hasiko dabe 17:00etan; 19:00etan Txantxiku txapelketa. Ume eta gaztetxoentzat gaztelu puzgarriak izango dira goizean eta arratsaldean.

Iñaki eta Jesusek emondako kontzertuagaz amaituko da eguna, 20:00etan. Aurretik, txorizoa bananduko dabe.



SAN PRUDENTZIOAK

Traña-Matiena



BERBAZ >



Juan José González •

- Bexilologoa.
- Elorrioko armariaren azterketa egin dau.

“Armarriko elementu nagusiak elorria eta gaztelua dira”

Juan José Gonzálezek Elorrioko heraldika ikertu dau, azterketatik ateratako ondorioekin armari barria egiteko

Juan José González bexilologoa (bandera eta estandarteetan aditua) Elorrioko armariaren inguruko azterketa sakona egin dau. 2006etik berak egindako lana Udaleko irudi korporatibo barriaren abiapuntua izan da. Bexilologia elkarteko EAEko ordezkaria da. Banderaren inguruko 42 lan egin ditu, eta horreetatik 32 instituzinoek ofizialki onartuak izan dira. Aldizkari espezializatuetan idazten dau eta Ikaskuntzako kidea da.

Zelan ekin zeuntsan ikerketa lan honi?

2006an Elorrioko benetako armaria zein izan zeitekeen jakiteko dokumentazio lanari ekin neutsan.

Zer artxibategi bisitatu dozu?

Elorrioko Udaleko artxiboan, Foru Artxiboan eta Artxibategi Nazionalean hainbat dokumentu aztertu ditut.

Zein da topatu dozun armarririk zaharrena?

Lehenengo armariaren aztarna fisikoa Santa Ana monastegikoa da. Uri bateko armari batek eduki leikezen ohiko elementuak daukazela esan leiteke: gaztelua eta elorria.

Zeintzuk dira bi elementu horren ezaugarriak?

Gazteluak uriaren eta gotorlekuaren kontzeptuari erreferentzia egiten deutso, eta elorriak herriko toponimiari.

Mende bat geroago Elorrioko Udalen fatxadan beste armari bat agertzen da.

Bai, Bizkaiko eta Elorrioko armari bat agertzen da frontisean gaztelu eta elorriagaz, eta Gaztela-Leongo beste armari bat be agertzen da.

Lehoi bat be badago beste armari batean.

Lehoia karlisten sasoiaren batean, arrazoi logiko barik, agertzen den elementua da.

1876an Elorrioko Udalak Ministro Kontseiluari bidalitako idatzi batean lehoiak zergaitik agertu ziren ez zekieela zinoen.

1928an gaztelua eta elorria berreskuratu zitueen.

Aurretik be, historian zehar, sasoi batzuetan agertu izan da. 1928an bertsinoko barri batean berreskuratu eben gaztelu modernista batez.

Denek ez dabe elorriaren eta gazteluaren teoria ondorio legez ateratu zan.

1965ean Francisco Sesmero Gernikako Batzar Etxeko artxidadore-kontserbatzaileak, azterketa lan batean, heraldikari buruz gaztelua, lehoiak eta haritza aitazten dituen elementu legez.

Orduan, haritza ala elorria?

Jaime de Querejeta ikertzaile eta abadeak 1995ean Udalera bidalitako idatzi batean haritzaren presentzia zalantzan

jarri eban. Elorriko toponimoak elorriari erreferentzia egiten eutsala argudiatu eban.

Eta izenburua?

“Oso noble eta oso leial” izenburua Elorrioko historian oraintsuko izendapena da, eta badirudi errege-emote batek baino kapritxoren batek eragina dela. Egokiagoa “Noble eta leial” izango litzatekeela koan nago, Isabel II.aren erregealditik datorrelako.

Irudi korporatibo barriak elorria eta gaztelua berreskuratu izanari zer deritzozu?

Irudi korporatiboaren grafismoa zuzena dela deritzot. Halan be, irudi horrek funtzio batzuk betetzeko balio dauen arren, ezin da heraldikagaz nahastu. Bakotxak bere espazioa dauka. Turismoa bultzatu edo Udaleko irudi legez logoa ondo dago. Beste gauza batzuetarako armaria erabili beharko litzake.

▪ Jone Guenetxea

“Elorrioko lehenengo armariaren aztarna fisikoa Santa Ana monastegikoa da”

“Elorria toponimoagaz lotuta dago; gotorlekua, barriz, hiribilduagaz”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Maiatzaren Lehenak langileen aldarriz beteko ditu kaleak

Sindikatu nagusiek hiriburuetara deitu ditue langileak gaur, enpleguaren alde borrokatzeko eskatuz

Kalea langileen aldarrien oihartzunak beteko dau gaur, Maiatzaren Lehenean. Sindikatu nagusiek hiriburuetara deitu ditue langileak, bakotzak bere aldetik. Holan, ELAK Bilbon egingo ditu ekitaldiak, eta LABek Euskal Herriko hiriburuetan egin ditu deialdiak, Bizkaiko langileak Bilbon batuz; berdin egingo dabe CCOO eta UGTk: biek ala biek, Bilbon egin dabe deia; baita Gasteiz eta Donostian be.

ELAren ustez maiatzaren 21erako greba giroa "berotzeko" balioko dau

"Arrazoiak sobran" dagoz, LABek dinonez, langileen eskubideak aldarrikatzeko

ELAren ustez, maiatzaren 21eko grebarako giroa "berotzeko" balioko dau *Borroka bidean* lelopean ospatuko dauen Maiatzaren Lehena: "Nahikoa dela esateko eta patronalaren xantaiari aurre egiteko". LABek *Langileon borrokaz, Euskal Herriak aldatu* lelopean egin dau langilerien eskubideak aldarrikatzeko aldarriz: "Horretarako arrazoiak sobran daukaguz, gehiago krisia langileok ordaintzea gura dabenean".

CCOO eta UGTk batera egin dabe deialdia, *Krisialdiari aurre egiteko: Empleo, inversión pública y protección social* lelopean, eta "krisi ekonomikoaren testuinguruan, mogimendu sindikal eta langileentzat are eta indar handiagoa hartuz". Bilgune Feministak kalera irtetzera deitu ditu andrak. ■ A.B.



Maiatzaren Lehenean parte hartzera deitu dabe sindikatuak azken egunotan. A.B.

> DURANGO

LABek eskualdean lanean hil direnak gogoratu ditu

Lan Osasunaren eta Segurtasunaren Nazinoarteko Egunagaz bat eginda lan istripuan hildako langileak ekarri ditu gogora LAB sindikatuak Durangon. *Euren krisia, gure osasunaren kontura. Gizarte borrokaz aldatu* zinoen pankartaren atzean Durangaldeko hainbat delegatu sindikal batu ziren apirilaren 28an. "Langileen eskubideak, bizirautekoa barne,

Igaz 10 langile hil ziren istripuan: Zornotzan 4, Durangon 3 eta Abadiño, Iurreta eta Ermuan bana

kolokan dagozela" nabarmendu dau LABeko Oier Perezek, eta urteroko aldarri izanik datozen urteetan be deialdiekin bat egitea.

Perez berbetan, "gauzakez dira aldatzen, eta krisi egoera honetan kontrakoa gertatu da; lan-baldintzetan, segurtasunean, soldatetan... atzera egin dogu". Igaz ehundik gora hildako izan ziren Euskal Herrian; Durangaldean 10. Lan istripu larriak eta arinak ehundik gora izan ziren, azaldu dauenez: "Urteroko datuak oso larriak dira". LABek langileren bat hil den herrian elkarretaratzeak egitera deitu eban. ■ A.B.

■ kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe
EHNE sindikatua

Maiatzeko liliak

Hilabete honek badu egun seinalatu horietariko bat, Maiatzaren Lehena, egun historikoa batzuentzat –hau da, historia gogoratu beharrekoa–, jai eguna beste batzuentzat eta borroka egun bat ere bai hainbatentzat. Denek izango dute arrazoi, gainera, azken finean egun bakoitza bakoitzak nahi duena da.

"Batzuk maiatzaren lehenengoari garrantzia kentzen saiatzen dira"

Pentsa, nik neuretzat ere badut maiatzaren 1eko eguna, nahiz eta dagokidana maiatzaren hamabosta izan, San Isidro, baserriarrok patroia, fedebakoak izanda ere. Neure bihotza hurbilago dut lantegietako beharginengandik, agian San Isidro ospatuko duten agroindustrial eta latifundistengandik baino.

Batzuk, askok eta botere handikoak, gaurko egunari garrantzia kentzen saiatzen dira, langile edo herritar den edozein gauzari indarra kentzen saiatzen diren neurri berean.

Duela urte batzuk buruargi batek historia bukatu zela bota zuen, eta begira zenbat gauza gertatu den ordutik hona. Beste buruargi batek dagoeneko ez zegoela langilerik bota zuen, eta asko aritu ziren eztabaida antzuan, langilerik ote zen ala ez.

"Bestelako mundu bat posible delako, greba egingo dugu"

Euskal Herrian baserriarrik ia ez dagoela esan dezake norbaitek, eta, zoritxarrez, ez du gezurrik esango, baina ez dagoela langilerik... zera! Nor ari da pairatzen sistema anker honen ostikada, langileria ez bada?

Horrexegatik, Internazionala entzuten dugunean bihotza xamurtzen zaigun askok, maiatzaren 1a gure eguna dela sentitu genuen bezalaxe, 21ean greba egingo dugu, baserriar zein proletario, bestelako mundu bat posible delako, Euskal Herri bat posible delako.

EXCAVACIONES JON

MOTAGUZTITAKU INDIKUTAK HONDARINURGIA

Jon Guriagotia Gallastegui

PIRIBARRIA, 30 • GIBELDA - 48200 MALLAIA
Tel: 946 87 29 84 • Mobil: 609 34 80 00

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



Judit Fernandez

ANTZERKIA > EMANALDIA

Antzerkia gazteek sortu bezala

Eguaztenean, Durango-ko San Agustin kultur-gunean izan dira Zugan Ni ekimenean parte hartzen duten Jesuitak ikastetxeko eta Elorrioko Institutuko ikasleen antzerki emankizunak.

Markeliñe antzerki taldeak kudeatuta, bigarren urtez martxan ipini duten ekimena da Zugan Ni. Gazteak, 14 eta 18 urte arteko gazteak, antzerki mundura gerturatzeari helburu duen lehiaketa da eguaztenean *Agian ez nauzu maitate* eta *Biraka bilaka* lanak ikusgai ipini dituen hainbat herritan.

Apirilaren 27tik maiatzaren 8a arte, azken hilabeteetan prestatutako lanak erakutsiko dituzte Zugan Ni jaialdiaren bigarren

aldian parte hartzen duten hamar taldeek. Atzo euren herrian, Arriola antzokian, izan dute emanaldia Elorrioko Institutuko ikasleek, eta eguaztenean Durangon bezala *Biraka bilaka* lana erakutsi dute bertan. *Ez direnak* eskaini dute Durangoko Jesuitetakoek.

Iurretako Institutuko taldeak, berriz, maiatzaren 6an du euren herrian *Errotatar ahizpak* lana erakusteko aukera, eta Amorebietako Institutuko taldeak *Escuela de Brujas* eskainiko du egun eta ohol-tza berean. Maiatzaren 7an, bestalde, Zornotza Aretolan izango du Iurretako taldeakurte honetan Markeliñek antolatutako Zugan Ni jaialdian prestatu duten antze-lanaren hurrengo emanaldia.

12 > 'Irakurri, gozatu eta oparitu'

Durangaldeko lau herri batu dira Topagunea Euskara Elkarten Federazioak irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako ekimenaren 3. ediziora.



13 > 'Munduaren bira doan' filmaz

Edorta Barruetabeña eta Unai Iturriagak osatu dute *Munduaren bira doan* filmaren gidioa, eta lehenengoagaz, Barruetabeñagaz egon gara.

GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia
Euskaltzaina

Urien abadiñar ospetsuaren mendeurrena

1909ko maiatzaren 24an hil zen, bere jaioterrian, Nikolas Urien abadiñar musikari ospetsua. Gantzaga baserri-etxeke seme hau 14 urtetik 16ra Berrizera musika ikasten joaten zen, oinez, Sebastian Gabiola musikari famatuarengana. Madrilera joan zenez gero, Gaiarre nafar handiaren laguntzaz Teatro Realean tenore ihardun eban, bizimodu estuaz. Bilboko Zabalburutar mezenasaren beka irabazi ondoren, Milanera joan zen, kantuz gainera, pianoa eta konposizioa ikastera.

"Maisu handi baten aurrean gagoz", esan eban La Lombardia aldizkariak

Hiru antzerki lanen partiturak egin zituen, baita *La Atlántida* opera be. Berau J. Verdaguer idazle katalanaren izen bereko poema famatuan oinarritua, Bartzelonan hil baino urte bete lehenago estreinatu ei zen, eta orduko hango egunkariak kritika laudoriozkoak idatzi zituen.

Lehenago, *Una notte del Deserto* musika obragaitik, Italiako prentsagandik be 1895eko Milango estreinaldiagaitik gorapamen ugari jaso zituen; adibidez, *La Lombardia* "maisuhandibaten aurrean gagoz" esanez. Obra hau Turinen, Madril eta beste uri batzuetan be emon zen.

300 piezatik gora konposatu eizituen: oberturak, melodiak, scherzoak, mezak, erromantzak, martxak, gavotak, minuetoak, fantasiak, zortziak eta abar. Eurotariko bat Alemaniako kaiserrari eskaini ei eutsan Berlinera egindako azken bidaian. Beste bat Italiako erreginari.

Tamalez, berrogei urte-gaz bakarrik hil zen, bere musikagintza oparoa garatzeko eta artista maila behar zen legez aitortzeko aukera barik. Berrizko herriak Gabiola musikaria omendu dau, baita kale bat eskaini be. Uste dot Abadiño herriak beste horrenbeste zor deusala Nikolas Urien bere seme argiari.

Udalaren eta kultur elkarrean esku dago. Aurtengo San Trokazetan, adibidez?

LITERATURA > EKIMENA

'Irakurri, gozatu eta oparitu' Berriz, Durango, Iurreta eta Zaldibarren

Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenaren hirugarren edizioa aurkeztu du Topaguneak

Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako beste 21 herritan bezala, Durangaldeko Zaldibar, Iurreta, Durangon eta, aurreko lehenengo urtez, Berrizen ere ipini dute abian *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena Topaguneak, euskara elkarteek, Udalek, liburutegiek eta dendek.

Herrietako euskara elkarte, liburutegi eta liburu-denden laguntza

Ekimenaren izenean bertan irakurtzen denez, hiru pausu ematera animatu gura gaituzte ekimena bultzatzen duten Berrizko Udalak, eta Berbaro, Geurien Bai eta Eixu euskara elkarteek. Hiru pausu dira "irakurtzeko gogoa" zabalteko helburuz proposatutakoak.

Euskarazko liburu bat hautatu, liburu irakurri, eta fitxa batean irakurritakoari buruzko iruzkin laburra egitea da ekimenaren proposamena; irakurlea aukeraketa horretan laguntzeko, adinaren arabera sailkatutako ehun libururen zerrenda ipini dute liburutegietan eskuragarri. Fitxa beteta, euskarazko liburuak erosteko baliatu ahaliko den deskontu txartela eskuratuko du irakurleak; Berrizko Ama-



Judit Fernandez

lur eta Durangoko Artea, Hitz eta Urriko liburu-dendetan baliagarri izango da: %25eko deskontu orokorra eta euskara elkarteetako kide direnentzako %50eko izango dute liburu-denda horietan euskaraz-

Euskarazko liburuak erosteko %25 eta %50eko deskontuak

ko liburuak erosterakoan. Behin kanpaina honekin irakurri, gozatu eta deskontua baliatuta, erositako euskarazko liburu horiek nahi dugunari oparitzen amaitzea da kanpainaren helburua. ■I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

Sexu eta botere gehiegikeriei buruzkoa

Maiatzaren 7an, 19:30ean, Iturri kultur etxean izango da *Los demonios del Edén*

Elorrioren urtariletik hileroko egin ohi duten Hilean Behin zinema emanaldirako maiatzean hautatu duten filma Alejandra Islas-ek zuzenduriko *Los demonios del Edén* dokumentala da: sexu gehiegikeriei eta pederastiari buruzkoa. Maiatzaren 7an, 19:30ean Iturri kultur etxean izango da doako emanaldia. Lydia Cacho kazetari mexikarrak 2005 urtean argitaratu zuen *Los demonios del Edén* liburu eta ondoren kazetariak bizi izan duen jazarpena ditu dokumentalak oinarri.

Mexikoko Puebla, Tehuacán eta Cancún hirietan gertatutakoa kontatzen duen dokumentala da maiatzerako hautatua. Bere liburuan sexu gehiegikeria jasan duten haurrei hitza ematearren, boterearen jazarpena -difamazioa egotzita, atxilotu egin zuten- bizi izan duen kazetariaren istorioa zabalteko sortutako lana da *Los demonios del Edén*. Dokumentalean bildutako testigantzak, Elorrioren ikus eta entzungai. ■I.E.



Lydia Cacho kazetari mexikarraren liburu du dokumentalak oinarri

DURANGOKO AZOKA > ADIERAZPENA

Azokako iazko kartelak ez zituela emakumeak baztertzen dio epaiak

'Gizon ikustezina Azokan' kartelari buruz

Asteon helarazi duen oharrean jakinarazi du Durangoko Liburu eta Disko Azokaren antolatzaile den Gerediaga elkarteak, "Euskal Liburu eta Disko Azokaren 43. edizioa iragartzeko kartelean ez zela sexu arrazoiengatik diskriminazio edo bazterketarik egiten" erabaki duela Berdintasunerako Defentsa Erakundeak.

Asteon jakitera eman duten ebatziak "argi erakutsi du Elkarrekin arrazoiak zuela defendatzen zituen argudioetan, eta 43. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragartzeko kartela ez zela diskriminatorioa", dio Gerediaga.

Gogoratu, *Gizon ikustezina Azokan* leloa zuen kartelak "emakumea euskal kulturaren ikusezin" bilakatzen zuela-eta, kartela aldatzea eskatu ziola Azoka bezperetan erakundeak Gerediagari.

"Piztutako polemika guztiak Gerediaga Elkartearen eta Durangoko Azokaren irudian eragin dako kaltea konpontzeko eba-

Emakumeekiko diskriminaziorik ez zela gertatu dio erakundeak

Elkatearen irudia kaltetu dutela dio Gerediaga Elkarteak

tzia ez da nahikoa", adierazi du Gerediaga Elkarteak oharrean.

Azokaren aurtengo ediziorako kartel lehiaketako baldintzetan, "inolako diskriminazio ikurrik ez dela onartuko" zehazten dela dio Gerediaga, eta lehiaketa zabaldu dute: lanak uztailearen 1a arte aurkeztu daitezke Gerediaga Elkartearen egoitzan. ■I.E.

ELKARRIZKETA > FILMA

Zelan joan zen barikuko estreinaldia? Estatu Batuetara be badarozue pelikula...

Barikukoa estreinaldi komertziala izan zen, sala komertzialletako estreinaldia. Lehenago, astelehenean Iruñean erakutsi genduen, martitzenean Gasteizen, eguaztenean Bilbon eta eguenean Donostian. Loussianako jaialdi batean erakutsiko dogu *Munduaren bira doan*.

Zer ibilbide izango dau lanak? Zelan zabalduko dozue?

Bi kontratu daukaguz pelikula zabaltzeko. Bata filmea Estatu-ko zinemetara zabaltzeko Barton Films banatzaileagaz, eta Kanadako enpresa batez (Comet Entertainment-egaz) be egin dogu tratua munduko hainbat telebistatan emoteko.

“Kanadarrek, oso lan europarra dela Munduaren bira doan esaten dabe”

“Diru-laguntzak eta mailegu bat izan doguz filma finantzatzeko”

Eta hemendik kanpora, ulergarria da umore mota hori?

Bi mundu dira, baina hemendik kanpora be gustatzen jake lana. Hori bai, kanadarrek esaten deuskue oso europarra dela filmea. Eurek beste abiadura batean funtzionatzen dabe, eta narrazioan be igartzen da hori. Berbetan minutuak emoten badozuz, urduri ipintzen hasten dira: eurek ekintza eta erritmoa behar dabe. Berba dauka *Munduaren bira doan* lanak, baina istorio unibertsalak sortzen bai saiatu gara.

Nondik sortu da filmea?

Pertsonaia talde nagusia Jon Alonso eta Asisko Urmenetak asmatu eben orain urte pilo bat. Telesail bat egiteko ahalegina egin eben; ETBgaz egin eben saiakera bat, baina azkenean ez eban aurrera egin.

Orain hiru urte sartu zinien proiektuan buru-belarri?

Bai. Europako merkatuetan proiektua erakusten hasi ginen. Hasierako telesaila egiteko helburua betetzeko finantziarioa lortzea oso zaila zela ohartu ginen; inbertsore edo telebista potente bat atzean ez badaukazu, ezinezkoa da finantziarioa lortzea. Eta pelikula bat egitea erabaki genduen.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza izan dozue.

Nafarroako Gobernuak izan zen diru-laguntza emoten lehenen-

“Hasieratik jakin dogu Munduaren bira doan apustu handia zela”

Unai Iturriaga eta **Edorta Barruetabeña** dira *Munduaren bira doan* helduendako euskarazko marrazki bizidun filmaren gidioa egin dabenak; lanaren bere parteaz egin deusku berba Edorta Barruetabeñak, filma estreinatu eta astebetera egin dogun hitzorduan



Judit Fernandez

goa, eta ETBk zinemarako proiektuetan inbertitzeko daukan diru-laguntza eta Eusko Jaurlaritzarena be izan doguz. Diru-laguntzagaz eta mailegu batez atera dogu aurrera *Munduaren bira doan*.

“Bakotxari entzun gura dauena kontatzen deusana da Bildotso”

Zer itxaron leike ikusleak?

Beste proiektu batzuk be badaukaguz, “gozoagoak” direnak zelan bait; umeendakoak, esaterako. *Munduaren bira doan* helduei zuzenduriko marrazkiak dira, eta hasieratik jakin dogu proiektu arriskutsua zela. Apustu bat da. Eta emaitza be estilo horretakoa izaten da: batzuei asko gustatzen jake, eta beste batzuei ez. Ez da *chupa-chups* bat. Apur bat garratza da.

Orain arteko ikusleen erantzunagaz pozik zagoze?

Bai. Guretzat abiapuntu bat da. Pertsonaiek indar handia daukie. Bai pertsonaiek bai sortu dogun munduak be. Fondoek-eta indar handia daukie; *collage*ak dira: eguzkia arraultza fri-

jitu bat da, eta ilargia gazta bat. Mundua beste modu baten berrinterpretatu dogu. Irudi bakotxa hamar bider ikusi arren, denpora guztian topatzen dozu zezoz barria.

Helduei zuzenduriko marrazkiak. Ez dira oso ohikoak...

Bai, ez dot uste halako beste lanik egin denik hemen. Beti umei begira egiten dira marrazki bizidunak. Merkatua argi dago umeen munduan dagoela. Eta ez da bakarrik Euskal Herriaren kasua, Europa osoan be helduendako marrazkiak erosten ditueen telebistak oso gitxi dira. Behin proiektu batek arrakasta izan dauenean bai, egoten dira erosteko prest, baina helduendako marrazkiak erosten dituen kateak oso gitxi dira European.

Ironia eta umore ikutu nabaria dauka pelikulak.

Umore garratza dau, bai. Barre algaraka hasteko umorea ez da baina, gehiago da irribarre zini-koa ateratzekoa.

Gidoia idazten hartu dozu parte Unai Iturriagaz.

Igazko urte hasieran hasi ginen gidioa egiten. Lehenengo egin genduen, pelikularen argumentua erabakitzea izan zen, eta hor pentsatu genduen munduari buelta emotea, doan.

“European be oso gitxi dira helduendako marrazkiak erosten ditueen telebistak”

“Lider zoro bat daukan lagun koadrila bat da protagonista”

“Irudi bakotxa hamar bider ikusi arren, beti topatzen dozu detaile barriren bat”

Zelakoa izan da gidoiaren idazketa lana?

Behin argumentu nagusia erabakita, pelikulako ekintza eta eszena guztiak idazten dira. Fase horretan, ‘Google docs’ erabili dogu: bakotxak bere etxetik, artxibo beraren gainean idazten genduen. Hilabeteren ondoren hasi ginen gidioa idazten. Oraindino finantzazinarik ez geukan arren, dekoratuak zelakoak izango ziren esperimintatzen hasi ziren lankideak...

Pertsonaiak zelakoak dira?

Lider zoro bat daukan lagun koadrila bat da; batek uste dau iraultza egitera doazela, besteak ez dau ezertan parte hartu gura baina beti amaitzen dau berak kartelak pegatzen, beste bat beti laguntzeko prest dago... Bildotso, otsoa eta bildotso izaten dakien pertsonaia da protagonista; bakotxari entzun gura dauena kontatzen deusana. Lagun guztiak erabiltzen ditu berak gura dauena lortzeko.

Marrazkia edo pertsonaiaren gidioa deskribapena sortzen da lehenengo?

Kontzeptua da lehenengo sortzen dena, eta gero Asiskok kontzeptu horren karikatua egiten dau. Pertsonaiak ikonoak dira ia-ia: ez daukie ia ezer. Ez daukie eskurik, esaterako. ■ I.E.

PINTURA > LEHIAKETA

Margo kolore eta usainak zabaltzen, 27 artista Berrizen

Zapatuan egin zuten Berrizko X. Kaleko Pintura Lehiaketa



Judit Fernandez

Goizean goizetik nabaria zen iragan zapatuan Kaleko Pintura Lehiaketaren hamargarren edizioa zela Berrizen: amantal zuri pintura orbanekin zikindutakoak zeramatzan jendea zebilen kalean, eta igartzen zen pintura usaina.

Euria egin zuen, baina teilapeak aprobetxatuta, Olakueta aldean hartu zuten aterpe margolari gehienek: zapatu goizeko giroa hotz samarra eta umela izanda ere, koloreekin marrazki abstraktuak zein figuratiboagoak osatu zituzten artistek. Autopista izan zuten euritako beste batzuek, eta herria zeharkatzen duen trenbidea jaso zuten euren koadroetan beste margolari batzuek.

Mendaroko Anton Urrestik jaso du lehenengo saria

Txomin Pinillari eman diote herriko lanik onenaren saria

Hain zuzen ere, *Tren geltokia* lana izan zen epaimahaiak onentzat hautatu zuen lana. Mendaroko Anton Urresti Alzibar izan da irabazle, eta berak eskuratu ditu lehenengo sariaren 550 euroak.

Aldameneko irudian ageri denez, baina, Olakueta bakarrik ez, Elizondo inguruan ere –elizpean batzuk eta bolatokian kokatuta zenbait– Berrizko ikuspegi desberdinak bilatzen ibili ziren eguerdira arte Kaleko Pintura Lehiaketako parte-hartzaileak, eguerdian lanak entregatu arte.

Txomin Pinillak jaso du herriko lan onenari eskaintzen zaion saria Kaleko Pinturaren Berrizko hamargarren lehiaketan, eta, guztira, 27 lagunek hartu dute parte hamargarren edizioan. ■ I.E.



Urrestiren lan irabazlea

MUSIKA > EMANALDIA

Euskal Strong Festival Durangoko Landako gunean

Alboko argazkian agertzen den Lugoko Twenty Fighters *Esta Es Mi Guerra* izeneko diskoko kantak eskaintzera etorri ziren Durangora, Durangoko Landako gunean zapatuan izan zen Euskal Strong Festival jaialdira; Idaba Musik eta Riff Produksioak izan dira Euskal Strong jaialdiaren antolatzaileak.

Besteak beste, H20 eta Hamlet taldeak izan ziren Landako gunean, euren *metal* doinuak entzutera ematen. Landakon izan ziren Berlinetik etorritako Final Prayer, Estatu Batuetako Nations Afire, Walls of Jericho eta Death Before Dishonor taldeak ere.

Eskualdeko No Humano, Alerta eta Ymotek taldeak ere baziren zapatu arratsaldean hasi eta gauerdia arte izan zen jaialdiaren kartelaren parte. ■ I.E.



Judit Fernandez

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 1-2 12:00etan
IV. PLATERUENA SKATE TXAPELKETA
 SKATE TXAPELKETA. Sarrera doan.

MAIATZAK 2 22:00etan
ENTOMBED (SWE) + COBRA + RHINO
 KONTZERTUA. Sarrera: 18-20 euro.

MAIATZAK 8 21:00etan
TRASH & BURN + HELLFEST JAIA (opariak, ...)
 KONTZERTUA. Sarrera: 25-28 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



ZUGAN NI 2

- San Jose Jesuitak 2
- Carmelo Kastetxea

2009ko Lehiaketaren sari banaketa

Maiatzak 8 ostirala 20:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

Bertsolaritzaz gehiago jakin eta gozatu gura badozu...

DF BERTSOZALE ESKOLA



Maiatzaren 5etik
ekainaren 2ra,
martitzenero 19:30ean,
Durangoko Plateruenean.

Bat-bateko bertsogintzaren
nondik norakoak

Bertsolaritzaren historia

Bertso jarriak

Saio motak

Gai-jartzailtza

Bertsolarien ikuspegia

Xabier Amuriza Unai Iturriaga Josu
Goikoetxea Maialen Lujanbio Igor Elortza

Izen-ematea: 10 euro (langabetuek
eta ikasleek 5 euro)

kultura@plateruena.net • 946 03 01 00 •
Platerueneko kulturgintza bulegoan
eta Kurutziaga ikastolako idazkaritzan.

Maiatzaren Lehenetik 21era, langileen eguneroko borroka



Kepa Aginako

Greba orokorrerako deialdia egin dabe maiatzaren 21erako ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek. Hilabete osoa aurretik egon arren, motorrak berotzen hasi dira dagoeneko. Gaurko egunez be, bi gai nagusi: krisia eta greba orokorra. Maiatzaren Lehena, maiatzaren 21erako geltoki. Sindikatu honeekin berba egin dau ANBOTOK.

Maiatzaren 21a: horixe da sindikatu abertzaleek greba orokorra antolatzeko aukeratu daben eguna. Langileen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenek segida izango dabe, beraz, Hego Euskal Herrian. Krisialdi ekonomikoan bete-betean murgilduta, sindikatu honeek mobilizaziorako deia egin dabe, patronala eta administrazioaren politikak salatzeko asmoz. Datorren astean izango da Eusko Jaurlaritzako gobernu aldaketa, eta giroa berotzen hasita dago.

Zalaparta eragin dau greba orokorrerako deialdiak. Abertzaleak ez diren sindikatuek ez dabe grebaren beharra ikusten, eta agintarien aldetik, elkarrizketa sozialari heldu behar jakola adie-

Sindikatu abertzaleek mobilizatzeko deia egin dabe, patronala eta administrazioaren politikak salatzeko

razo izan dabe. Sindikatu deitzaileek, aldiz, bide hori balio bakoia ikusten dabe gaur egun: "mahai horretan ez dago hobekuntzarik langileen klasearentzat, baina bai subentzino mordoa bertako partaideentzat", ELA-ko Mikel Etxebarriaren arabera. Etxebarriaren eritziz, "historiak erakusten deusku mobilizazio eta gatazka sozialen bitartez bakarrik lortu ahal izan direla garai-pen sozial eta gizarte justuagoak".

Mobilizaziorako apustua egin dabe, beraz, sindikatu abertzaleek. LABeko Oier Perezen ustez, administrazioek "sistema kapitalistak irau daian gura dabe, egoera honetara ekarri gaituen sistema irauarazi". Horren adibide lez pintzen dau "bankuen

interes pribatuei diru publikoa bermerik barik emotea". Sistema kapitalista "hilik" dagoela eta, Perezek Euskal Herriarentzako "aldaketa soziala" eskatzen dau, "lehentasuna gizartearen beharrek izateko".

Langabezia tasaren igoera kezkarria izan da azkenaldian. Horixe da, hain zuzen be, grebaren arrazoi nagusietako bat. ESK-ko Txexo Ortégaren hitzetan, "azken hiruhilabetekoan 30.000 langabetu gehiago dagoz Hego Euskal Herrian", eta etorkizuneko aurreikusten diren datuek be "ezer onik" ez dakarreela dino.

Sektoreen salaketak

LABeko ordezkariak gogoratu deuskun moduan, "egoera larria" bizi dogu Durangaldean. Automozino eta metal arloetan eguneroko ogi bihurtu dira kaleratzeak eta espedienteak, baina arazoa ez da hor amaitzen. Izan be, HIRUko Jesus Agirrebeitiak dinon lez, "guztia kate berean lotuta dago". Garraiolarien sindikatuko kideak argitu dauenez, "produktzioa jaistean garraiolarien

beharra be jaisten da". Errepi-deetan kamioi gitxiago dabilela azaldu dau, "lanpostu ugari galdu direlako".

EHNEko Iñigo Etxebarriak nekazari bizi daben egoera argitu deusku. Bere ustez, krisia ez da oraingoa bakarrik, "krisi global honek landagunea erasotzen dihardu aspaldi". Adibidea be badauka: "joan den hamabost urteetan, 12.000 esne ustiategi izatetik 1.000 izatera igaro gara Euskal Herrian". Liberalizazioaren bidea eta eskubideen galera "lerro paraleloak" dira Etxebarriarentzat, eta baserritarren egoera "itogarria" dela gaineratu dau.

STEE-EILAS sindikatuko ordezkaria da Arantza Fernández

Langabezia tasaren igoera kezkarria da azkenaldian; hori da grebaren arrazoi etako bat

de Garaialde. Lanpostuengaleran baino, "irakaskuntzan gaur egun bizi den prekaritatea" ikusten dau arrisku modura; batez be, ordezkoren eta laguntzaileen kontratuengaitik. Grebarako arrazoen artean, Hezkuntza Sistema Publikoa indartu behar dela aldarrikatzen dau, eta "prekaritatea bizi dabenei elkartasuna adierazi be bai".

Gobernu barriari begira

Maiatzaren 5ean hartuko dau lehendakari kargua Patxi Lopez sozialistak, eta grebara deitu daben sindikatuek badaukie "egurrik" beretzako be.

ELA sindikatuko bozeroaleak "patronalaren xantaiak publikoki eta era efektiboan desmontatzea" eskatzen deutso, Gizarte Segurantzza, Lan Osasuna eta Formakuntza mailan "erabateko eskumenak" Euskal Herrira ekarzteagaz batera.

Sindikatu abertzaleek greba orokorra ez dabe helmuga moduan ikusten, tresna moduan baino

141.000 pertsona inguruk osatzen dabe gaur egun Euskal Herriko langabetuen poltsa

LABekoaren eritziz, "enpresei benetako auditoriak egin behar ko leuskieez, baina badakigu Lopez nondik datorren eta ez dau gauza handirik aldatuko". ESK-koak be ez dau ulertzen zelan onartu deutseezen espedienteak irabaziak izan ditueen enpresei.

Aurrera begirako tresna

Sindikatuok bat egiten dabe greba orokorraren funtzinoa definitzerako orduan. Ez dabe helmuga moduan ikusten, tresna moduan baino. Perezen berbatan, "lehenengo pausua izango da; 22an hasiko da benetako lana". Ortegaren eritziz be greba orokor honek "norabidea" markatzeko balio behar dau, "indarrak bilduta kapitalismoaren kontrako erresistentzia mogimendua sortzeko".

141.000 pertsonak osatzen dabe gaur egun Euskal Herriko langabetuen poltsa. Batzuk lana aurkitu ezinik, beste asko kalerata. Durangaldean be badaukagu horren barri. Greba deitu daben honetan, egoera ez da argitsua, eta datozen hilabeteak ilunago ageri dira. ■ M.O. / J.D.

Eztabaida piztu dauen greba orokorra, gobernu barriaren lehenengo urratsetan



Kepa Aginako

Azken orduko oker handirik ez badago, PSE-Eek hartuko dau Lakuako agintea datorren eguaztenean. Ondorioz, greba orokorra gobernu barriaren lehenengo buruhauste bihurtuko da, ibilbidea hasi eta berehala. Sektore batzuetako ordezkariak greba hau politikoa dela eta egoera politikoan eragitera doa zabaldu dabe.

ELAko Mikel Etxebarriak dinenez, ez jake arraroa egiten CCOO eta UGT grebara ez batzea. Sindikatu horreek hartu daben jarrera "lotsagarria" iruditzen jake, "Frantzian jadanik bi greba orokor egin dira, hemen daukagun langabezia tasaren erdia daukien arren". LABeko Oier Perezen berbetan, "Nafarroarako be eragile berbere greba deitu dogu, beraz, argi dago ez daukala zerikusirik gaur egungo testuinguru politikoagaz". Gainera, Euskal Herriko batasun sindikalaren "onurak" gogoratu ditu, otsailaren 19an publiko egindako txostena oinarri hartuta.

ESK-ko Txejo Ortegaren eritziz, "greba honek soslai politiko argia dauka, baina horrek ez dau

esan gura partidista denik". EAEko gobernu barriagaz batera, Nafarroan eta Espainian aginte ardura daukienei "jokalekua markatzea" da helburua, Ortegak dinenez.

STEE-EILASeko ordezkariak be antzeko eritzia agertu dau. Euren xedea gobernuen joerak aldatzea da, "patronalaren alde ekin beharrean gehiengo sozialaren alde jokatu daien". Eztabaida, patronala eta administratzenoekikoa izan behar dela uste dau Fernández de Garaialdek, "sindikatuaren arteko barrik".

EHNEko Iñigo Etxebarriaren arabera, "egoera honi aurre egiteko, gure proposamenak eta lan ildoak berresten doguz gobernu barriaren aurrean be". Egoerari buelta emoteko, "sistema hau aldatu" behar dela eta horretarako "tresna bakarria mobilizazioa" dela gaineratu dau.

Jesus Agirrebeitiak, HIRU sindikatuko ordezkariak, "sindikatuaren artean ezberdintasun ideologikoak" dagozela azaldu dau, baina "horrelako uneetan elkar-tu eta indarrak batzea garrantzitsua da", bere ustez.



Mauricio García
UGT sindikatua

"Eztabaida soziala bultzatzea da bidea"

Maiatzaren 21eko deialdiaren aurrean zer balorazino egiten dozue?

Deialdi honeguz ez dogunez bat egiten, balorazino negatiboa da. Krisia mundu mailakoa denean, ez dauka zentzurik hemen greba egiteak. Konponbidea globala izan behar da.

Sindikalgintzatik zer egin daiteke krisiaren aurrean?

Eztabaida soziala bultzatzea. Langabezia gelditzen direnak babestu, laguntzak jasotzeko epeak laburtu... Gobernu zentrala gastu soziala bultzatzen dabil, udalei inbertsinotarako laguntzak emoten dabil, kontsumoa bultzatzen... Lan gehiago egin leiteken arren, irtenbideak bilatzeko bide horretatik jarraitu behar ko da.

Egun horretan bertan kongresua antolatuko dozue.

Kasualitate handia da Gas-teizen egun horretan bertan kongresua daukagunean greba deitzea.

Grebaren inguruan zer irakurketa egiten dozue?

Deialdi horrek harritu egin gaitu. Ez dakigu greba horregaz lortu gura dena. Krisiaren hasieran lehenengo mobilizatu zen sindikatu UGT izan zen. Beste sindikatuekin batu gura genduen mobilizazioetan. UGT eta CCOO kanpoan itzi gaitue. ■ J.G.

"Sindikatuok batzeko aukera ona galdu da"

Zer deritozue Maiatzaren 21eko greba deialdiari?

Ez dogu ekimen horregaz bat egin ez gaitueelako ez deitu ez gonbidatu. Ez gagoz greba egitearen kontra. Dena dela, sindikatu guztiak batzeko aukera ona galdu delakoan gagoz.

Krisiaren aurrean zer egin leiteke?

CCOOk mobilizazio eta proposamenen bideari

ekin deutso. Durangaldean delegatuen asanblada bi eta manifestazioak antolatu doguz. Maiatzaren 16an Madrilen manifestazioa deituta dago.

Hartu beharreko neurriak hartu dira?

Ez, gobernuak eztabaida sozialari jaramon gehiago egin behar deutso. Denbora galtzen gabild, eta diru publikoa ez darabile

gizarteko arazoak konpontzeko. Instituzinoek eztabaida hori bultzatu behar ko leukie.

Lanbazeziadatuak oso ezkorrrak dira.

Bai; enpresa asko ez dabilz ondo jokutzen. Krisian gagozen arren, orain arte langileon ahaleginari esker urte honeetan lortutako eskubideak defendatzen jarraitu behar dogu. Krisiari aurre egin behar jakola jakin arren, langile eta enpresen arteko hitzarmen kolektiboak ezin doguz bazterrean itzi. ■ J.G.



José Petite
CCOO sindikatua

Gutunak

AHT ez da inbertsioa: alferrikako gastu kaltegarria da

Euskal Y-aren kostua, gaur egungo aurrekontuen arabera, EAE-ko adin nagusiko bakoitzeko 4.859 eurokoa izango da. AHT Gelditu Elkarlanak 800.000 inguru agiri buzoneatu ditu Euskal Herriko hiriburu eta herri askotan, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako gobernaren sasi-izenean jakinaraziz EAEko adin nagusiko herritar orok 4.859 euro ordaindu beharko dituela Euskal Y-a finantzatzeko, eta Nafarroako herritarrei AHTaren eraikuntza-lanen dirua aurreratu ahal izateko gastu sozialen arloan egin beharko diren hainbat murrizketen berri emanez.

Gogor salatu nahi dugu AHTan gobernuak xahutzen ari diren dirutza publikoa, ingurumenean izango den kaltegarritasunagatik eta ekonomia gizarte ikuspegitik izango ez duen errentagarritasunagatik. Era batera edo bestera, zerga gehiago ordainduz edo zerbitzu publikoen murrizpenarekin, agirian eskatzen den dirua (4.859 euro) bakoitzak ordaindu beharko duguna izango da AHTa aurrera badoa. Jaurlaritzak gutunarengatik beldurra erabiltzen dugula dio, baina guk ez dugu inor Auzitegi Nazionalera bidaltzen. Gainera, bere prentsa-oharra edo adierazpena irainez beteta dago.

Euskal Ya, Nafarroako Korridorea eta Lapurdiko LGV linea berria egiteko, 10.000 milioi euro bideratzea ezinbestekoa da banku, eraikitzaile eta politikarien hitzetan. Funtsezkoena, orain esaten dutenez, AHTaren eraikuntzak ekonomiaren suspertzean izango duen eragina omen da. Iruzurra, puntu horretan eta egoera honetan bereziki, are latzagoa da:

1. Euskal familien zorpetze-tasa bikoiztu egin da, eta Hego Euskal Herrian 2009an 38.500 lanpostu suntsitu dira; 141.000 lan-gabetu daude. % 10,4koa da langabezia tasa eta Eusko Jaurlaritzak 549 milioi euro bideratu ditu AHTa egiteko.
2. Zor publikoa herritarren babes sozialerako bideratu beharrean, garraio-azpiegitura horietara bideratuko da; hori gutxi balitz, azpiegitura horiek %45 inguru garestitzen dira.
3. Eraikuntzaren arloan sortzen diren lanpostuak aldi baterakoak eta prekarioak dira. Porlanaren negoziok onura ekonomikoak enpresaburu eta bankuentzat soilik ekarri ditu.
4. Mantentze-lanen kostuak ere egongo dira. Kudeaketa pribatua izanik ere, diru publikotik bideratu beharko da azpiegitura mantentzeko.

Estatu espainiarrak, mundu zabalean aplikatu den bezala, politika ekonomiko eta sozial neoliberalak erabiliz nabarmena izan da eraikuntzan oinarritutako ekonomia. Espainiakoa izan da Europa osoan etxebizitza eta autobia kilometro gehien eraiki duen Estatu. Eta eraikuntzaren burbuilak eztanda egin ondoren, autobia, autopista, AHT, superportu eta abarretan inbertitzea izan da gobernuen erantzuna. Espainia izango da mundu osoan Abiadura Handiko Tren kilometro gehien izango duen Estatu. Eta zein da lanik gabe, babes sozialik gabe, etxebizitza gabe geratzen ari diren herritarrei gobernu horiek berek emandako erantzuna? Horretarako dirurik ez dagoela.

Bukatzeko, maiatzaren 9an, Iruñean, *Guztion artean, AHT gelditu! Txikizioarentzat diru gehiagorik ez lelopean* egingo den AHTaren aurkako manifestazio nazionalera ahalik eta jende gehien biltzeko dei egingo dugu.

Durangaldeko AHT Gelditu! elkarlana

Karina

“Gomuten kutxan” bilatzera bultzatu gaituztenez, neure pertsonalean arakaten hasita, gogoan dut behin aita oso pozik etxeratu zela gabonetako saskia besoetan zuela, ohiko zerekin batera Bourbon whisky botila bat ere bazegoelako, lehenengoz. Horrek ez zion nagusiarekiko estimua handitu, baina kopa eskuartean zuela nabari zitzaion irribarra bene-benetakoa zen.

Zaila ez denez, zeuei utziko dizuet lotura egiten. Gaur Karina eta bere mitikoek Matienara egingo diguten bisita dela-eta, nor esango zenukete dela ugazaba, nor aita eta nor whiskya? Bai horixe! Dena dela, mitikoak ekartzea neurri populista beharrean solidarioa dela uste duenik badago. Benetan horrela dela sinestuta ere, jaietako aurrekontu osoaren %25 eskatzen duela jakinda (70.000 eurotik 18.000), desproporzio horrek nahikoa beharko zukeen asmoa atzera botatzeko; sen onagatik zein lotsagatik. Proposamen bat: zergatik %25 hori ez bihurtu %5X5? Eta bosten bat, esaterako, De Norte A Sur taldeari eskaini, euren ikuskizuna jantzi dezaten? Tentatu, euren gana joan, noiz etorriko egon beharrean. Jokabide hori kultur aniztasunaren eta elkarbizitzaren aldeko adibide ona litzateke; eta merkeagoa.

Komunikabideetan irakurri dudanez, Jose Luis Navarro alkateak aurreko gerrikoa estutu beharrean izan direla azaldu du. Ez duena argitu da noren gerrikoak estutuko duen. Berea ez behintzat.

Kepa Larrazabal (Abadiño)

Klik batean @



“Obra amaigabeak”

Iurretarako Bixente Kapanaga kaleko obraren argazki hau bialdu deusku. Herritar honen berbetan, kale honetako herri-lanak “amaigabeak” dira. “Hainbeste denporan kalea itxita egon eta gero, obrak amaitu eta ostera be harlauzak altxatzen hasi direla emoten dau”, kexatu da Iurretako irakurlea.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Carlos Iglesias

Kirol kontuak

Ezaguna da futbolak duen efektu hipnotikoa. Jende-andanak erakartzeko duen gaitasuna. Behin baino gehiagotan ikusi dugu talde batek, kamiseta bateko koloreek munduan diren arazo larrienen aurrean terapia lana egiten dutela. Ez dago esan beharrik, Athleticaren eta Baratzelonaren arteko Kopako finalak langabezia datuak, erregulazio-espeditenteak, hipoteken atzerapenak eta etorkizun iluna alde batera utzi dituela.

Zaleen artean ilusio hau sortzea ulergarria da titulu barik 20 urte eman eta gero. Oraindik nabariagoa da ekonomia familia xumeenei eragiten ari zaien kaltearen aurrean.

Inoiz baino gehiago, lehoiek egunkarietako azalak bereganatu dituzte. Informazio iturri dira. Masa sozialaren babes gutzia jasotzen ari dira, gainontzeko kirolek Athleticaren efektua ahal duten moduan jasaten duten bitartean.

Lehengobaten, BSR gorpildun-aulkiko saskibaloi taldearekin gai honi buruz berba egitean, hainbat ondorio ateratu nituen. Sortu den egoera konpartitu eta ulertzen dute. Hala ere, taldekideek dituzten kexek zentzua izaten jarraitzen dute. Bost minutu nahikoa izan ziren beraien burua kiroletako “mamu” legez zergatik definitzen duten ulertzeko. Sando managerrak azaldu zidanez, egunero entrenatzen dira, partiduetan jokatzeko penintsula osoa zeharkatzen dute, Bizkai-ko hainbat elkarterekin gizarte lana egiten dute. “Doan egiten dugu, lan-talde amateurra baikara”, azaldu zidan.

Talde hau mintzen duena komunikabideetan ia ez direla agertzen da. Ez zaie bidezkoa iruditzen, eta ez da gutxiagorako. Inoiz baino gehiago, talde hauen ahalegina baloratu beharko litzateke, Athleticarenganako sentimenduen eta edozein finalen gainetik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2009ko maiatzaren 1a - 8. urtea - 328 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia


Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



BERBARO

20 urte

berbaro elkartea
1989 - 2009

20 urte
euskaraz bizitzeko
aukerak sortzen

gunkaria

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 1ean eta 2an PATINETEARI EUTSIZ

Goi mailako ikuskizuna eskainiko deuskue goi mailako patinatzaileek, asteburuan, IV. Plateruena Skate Txapelketaren eskutik. Plateruena eta Landako erakustazoka izango dabe agertoki munduko patinatzaile onenek. Denera, 60 parte-hartzailek jardungo dabe, tartean igazko txapelkun Iban Rivadok (Bilbo) eta orain urte biko txapelkun Alain Goikoetxeak (Algorta). Aaron Swemind ingeles eta Jurgen Howard alemaniarra be izango dira.

BESTEAK

IURRETA

» 'Iurreta ezagutu' kanpainaren baitan herriko ikastetxeekin hitzartutako bisita gidatuak, maiatzaren 14an eta 15ean.

ZALDIBAR

» Gazteleku 12-16 urte arteko gazteendako, maiatzaren 1ean, 2an eta 3an, 16:00etatik 20:00etara.

» Eskualdeko II. Pilota Txapelketa, maiatzaren 2an, 16:30ean, Olazar pilotalekuan. Maiatzaren 8an, 19:00etan.

BERBALDIA

ERMUA

» Berbetan jardunaldiak: Txatxili-purdi aisialdi elkarteak, maiatzaren 5ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean. Euskarazko aisialdiaren garrantziaz jardungo dabe Euskal Birusak, Kaltxango-AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegia, Anaitasuna ikastola eta Eskolaberri eskolak antolatutako berbaldian.

MALLABIA

» 'Eguneroko gatazkak konpontzeko irtenbideak' (Ana Oiarzun psikologoa-Adindu), maiatzaren 6an, 16:00etan, Jubilatuen Etxean.

DEIAK

DURANGO

» Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

» Julene Azpeitia haurreskolarako izena emoteko epea zabalik, maiatzaren 4tik 15a bitartean.

IURRETA

» Udaleku finkoa eta ibiltaria eratu ditu Kimuak elkarteak. Uztailean. Izena emoteko Ibarretxe kultur etxean (www.kimuak-elkarte.com / kimuak@kimuak-elkarte.com).

» Hezkuntzagaitiko diru-laguntzak jasotzeko eskari-orriak aurkezteko, maiatzaren 8a bitartean, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean (94 620 03 42 / www.iurreta.net).

ERAKUSKETA

ABADIÑO

» San Prudentzio jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak. Maiatzaren 3a arte, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

BERRIZ

» X. Kaleko Pintura Lehiaketako margoak, maiatzaren 15a bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

» 'Ez dira pasako', 'Lost In Durango' proiektu bekadunaren atala. Carlos Martinez. Maiatzean, Arte eta Historia Museoa. 2007an, Udalak Arte Sorkuntza bultzatzeko bekak babestutako proiektua.

ERMUA

» Marrazkiak. Antonio J. Hernandez. Maiatzaren 3a bitartean, Lobiano kulturgunean.

IURRETA

» 'Animaliek hizketan zekiten garaian' areto literarioa. Maiatzaren 4tik 15a bitartean, erakusketa. Bisita gidatuak egingo ditue Lehen Hezkuntzako 1.-6. maila arteko ikasleekin.

ZORNOTZA

» Amorebieta-Etxanoko Toponi-moak. Maiatzaren 4a bitartean,

Zelaieta zentroko erakusketa gelan. Udalerriko auzo, baserri, etxe, baso eta gainerako enen bilketa-lana, mapak eta argazkiak batzen dira.

» Fernando de Vicente. Margoak. Maiatzaren 4tik 31a bitartean, Zelaieta zentroan.



IKASTAROK

BERRIZ

» Sexualitatea heldutasunean. Ekainaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Hezitzailea Miriam Herbón feminista, barreterapeuta eta soziologoa (94 682 40 36 / berdintasuna@berriz.org).

DURANGO

» Spin Bike ikastaroa. Maiatzaren 4an hasita, Landako kiroldegian. Izena emoteko epea zabalik dago kiroldegian edo honako helbidean: www.durangokirolak.net



ELORRIO

» Emakume eskolaren baitan barreterapia ikastaroa, maiatzaren 5, 12, 19 eta 26an eta ekainaren 2an, 18:00etatik 20:00etara. Ana Brea izango dabe irakaslea. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

» Emakume eskolaren baitan sexualitate tailerra, maiatzaren 8an, 9an eta 16an. Barikuan, 17:30etik 20:30era, eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara. Saioa Hernandez izango dabe irakaslea. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

IKUS-ENTZUN

ZALDIBAR

» 'Mundua zazpi koloretan' (Jon Arretxe) ikus-entzunezkoa. Maiatzaren 7an, 18:30ean, Udal Liburutegian.



IPUINAK

ERMUA

» Apika taldearen eskutik ipuin kontaketa saioa. Maiatzaren 2an, 17:30ean, Udal Liburutegian.



JAIK

ABADIÑO

Sanprudentzioak

» Elkarteen azoka, maiatzaren 1ean, 12:00etan eta 13:30ean, perretxiko pintxoak, Traña plazan, Geredixa mikologia elkarteak antolatuta.

» San Prudentzio Pilota Txapelketaren finala, maiatzaren 1ean, 17:00etan. Xake erakustaldia, 17:30ean, Pino plazan.

» Traña-Matienako eskoletako neskatoen koreografia jaialdia, maiatzaren 1ean, 18:00etan, Errota kultur etxean (sartzeko gonbitea Errotan bertan hartu leiteke; sarrera bi pertsonako). 70eko hamarkadan girotutako jaialdia, 21:00etan, Trañabarren etorbidean. Mozorro txapelketako sari banaketa be egingo dabe.

» Su artifizialak, maiatzaren 1ean, 22:30ean, eta, 23:00etan, musika jaialdia: Miticos 70: Tony Ronald, Karina y Micki, Trañabarren etorbidean. Onda Futura diskoteka, 01:00ean hasita.



» Benjamin mailako futbol partidua: Traña-Matien H.E. B eta Zornotzako Andra Mari I, maiatzaren 2an, 11:00etan, eskoletan.

» Paella Txapelketa, maiatzaren 2an, 12:00etan, merkatu plazan. Ugasio txapelketa, 16:00etan, eta 18:00etan Tortilla Txapelketa. Aurretik, 17:00etan, Frontenis Txapelketaren finala, frontoian.

» Su artifizialak, maiatzaren 2an, 22:00etan, eta, Iris taldeagaz jaialdia, 23:00etan, Trañabarren etorbidean.

» Txistularien kalejira, maiatzaren 3an. Era berean, Geu Be elkarteak txahal bat erreko dau, Traña plazan. Umeendako margo txapelketa, 10:00etatik 13:00era, Traña plazan (euria bada, fron-

BERRIZKO UDALA

MAIATZA

Maiatzak 2
Dantza saioa: Jubilatuen egoitzan arratsaldez

Maiatzak 8
Musika: Juan Carlos Irizar, Kultur Etxean, 22:00etan.

Maiatzak 10
Film laburren emanaldia. Kultur Etxean, 19:30ean.

Maiatzak 15
Ume antzerkia: "Munstroak akatu", Kultur Etxean, 17:30ean.

Maiatzak 22

- Ume antzerkia: "Anita pelo sucio", Kultur Etxean, 17:00etan.
- Donejakue bidea: Kiroldegiak antolatuta asteburuko mendi irteera. Izena emoteko epea maiatzaren 15era arte.
- Antzerkia: "Ogiyic karri entzun semia", Kultur Etxean, 22:00etan.
- Jaietako kartela: lehiaketan lana aurkezteko azken eguna.

Maiatzak 24
Film laburren emanaldia. Kultur Etxean, 19:30ean.

Maiatzak 29
Antzerkia: "Va de bromas", Kultur Etxean, 22:00etan.

Maiatzak 30-31
Bizkaiko Emakumeen Saskibaloi Kopako finala

Udaleku Irekiak

- Begiraleen kontratazioa: eskaerak maiatzaren 22rako.
- Gaztetxo enen-ematea maiatzaren 25etik 29ra.
- Udalekuak uztailean 6tik 24ra egingo dira.

toian). **Nekazari, Artisanu eta Abeltzainen Azoka** 10:00etan zabalduko da.



- » **Herri Kirolak**, maiatzaren 3an, 12:00etan, Traña plazan. **Baita sokatira saioa be.** Aldi berean, **futbito partidua eskoletako amen eta neska ikasleen artean.**
- » **Idi-probak**, maiatzaren 3an, 16:00etan, Trañabarren etorbidean.
- » **IV. Danborrada**, maiatzaren 3an, 18:30ean, De Norte a Sur taldeak antolatuta eta **Sugarri txarangak alaituta.** Jaiak agurtuz, **Donien Atxa botako** dabe, 20:30ean.

MALLABIA

Marixelen jaiak- Areitio

- » **Meza**, maiatzaren 1ean, 11:30ean. Ondoren, **Mallabiko Trikitilari Eskolaren saioa**, eta, **Herri Kirol saioa: aizkoran, Bihurri (Eibar)-Zelai II (Mallabia) eta Mendieta (Arratia)-Aitxugane "Jabi" (Mallabia).**
- » **Auzoko erretiratuendako bazkaria**, maiatzaren 1ean, 14:00etan, Goizeder jatetxean. **Umeendako jolasak**, 17:00etan, eta, 18:00etan, **asto probak: Artabeitxi (Bolibar), Vitorio Celaya (Eibar) eta Goizeder jatetxea (Mallabia).**
- » **Meza**, 11:00etan, maiatzaren 3an. Ondoren, **kontzertua: auzoko Igone Amesti bakarlari eta Durangoko Mikel Nuñez piano-jotzailea.** Jarraian, **Herri Kirolak: Aizkoran, Eñaut (Onandi-Mallabia)-Goñi (Nafarroa) eta Bixente (Areitio-Mallabia)-Flores (Nafarroa) bikoteek jardungo dabe; harri-jasotzen, Urdatx (Abadiño).**
- » **Asto probak**, maiatzaren 3an, 18:00etan: **Maiora elkartea (Maume), Erleaga (Mendata) eta Urkiaga (Eibar).** Ondoren, **bildotsaren zozketa.**

JARDUNALDIA

DURANGO

» **Poesia jardunaldiak**, maiatzaren 7 eta 8an. Errezitaldiak eta hitzaldiak.

LEHIAKETA

BERRIZ

» **San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak Udal Liburutegian aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da. Sariak: irabazleak 300 euro lortuko ditu; herriko onenak, 100 euro.

DURANGO

» **IV. Plateruena Skate Txapelketa: 'Parkatu Street'**, maiatzaren 1ean, 12:00etan, Plateruenean. Maiatzaren 2an, **'Txotx Miniramp'**, Landako erakustazokan.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra: 'Txina'**, maiatzaren 4, 11, 18 eta 25ean, 18:15etik 20:15era, Udal Liburutegian. Aurretik, eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.net).

MUSIKA

DURANGO

» **Entombed (Swe) + Cobra +**



Rhino, maiatzaren 2an, 22:00etan, Plateruenean.

ZORNOTZA

» **Eleizatan: Sakyr laukotea**, maiatzaren 3an, 12:00etan, Etxanoko Andra Mari eleizan.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Zine emanaldia**, maiatzaren 3an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Los abrazos rotos'**, maiatzaren 7an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ELORRIO

» **Hilean behin.dok: 'Los demonios del Edén'**, maiatzaren 7an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.



Maiatzaren 2an, 22:00etan

ENTOMBED, SUEDEKO METAL DOINUAK PLATERUENEAN

1990ean hardcore punk eta bestelako doinuei lekua egin arren, Eskandinabiako death metalaren —'Estokolmo' soinua izendatu ebena—aitzindarietako bat izan zen Entombed suediarrek ingongo dira zapatuan Plateruena kafe antzokiko oholtza gainera. Nihilist izenagaz 1987an jaiotzen zen talde horregaz batera, Cobra eta Rhino musika talde bizkaitarrek be eskainiko dabe kontzertua Plateruenean, bertaratu diren jarraitzaileen gozamenerako. Jaialdia 22:00etan hasiko da.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

X-Men: Lobezno

Zuzendaria: Gavin Hood

barikua 1: 19:30 / 22:30

zapatua 2: 19:30 / 22:30

domeka 3: 19:30 / 22:30

astelehena 4: 19:00 / 22:00

martitzena 5: 20:00



Monstruos vs alienígenas (3D)

barikua 1: 17:00

zapatua 2: 17:00

domeka 3: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Slumdog Millionaire

Zuzendaria: Danny Boyle

barikua 1: 20:00

zapatua 2: 22:30

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00



Umeendako zinema

Mas allá de los sueños

domeka 3: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

The Reader (El lector)

Zuzendaria: Stephen Daldry

zapatua 2: 22:00

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00



BOTIKAK

- Barikua, 1** 09:00-09:00
 - Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
- Zapatua, 2** 09:00-09:00
 - Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
 - Campillo / Balenziaga / Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego (Durango)
 - Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 - Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
- Domeka, 3** 09:00-09:00
 - Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
- Astelehena, 4** 09:00-09:00
 - Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
- Martitzena, 5** 09:00-09:00
 - Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Eguaztena, 6** 09:00-09:00
 - Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Eguena, 7** 09:00-09:00
 - Navarro (Artekale 6 - Durango)
- 09:00-22:00**
 - Balenziaga (Ezkurdi 8 - Durango)
 - Balenziaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak112	UDALAK
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK
Matieta606 459 988	Abadiño94 621 55 33
Durango Geltokia946 811 001	Berriz94 682 40 36
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK
J.L. Uriarte ..670 402 002	Arriola94 658 31 92
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuegoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 16° BARIKUA**
- Hobera egingo dau baina ez dogu guztiz igarriko arratsaldera arte. Goizean zerua estali samar egongo da. Arratsaldean ostarteak zabalduko dira. Ipar-mendebaldeko haizeak ez dau temperatura asko igongo.
- 19° ZAPATUA**
- Hodeiak pilatuko dira, eguneko lehen partean zirimiria itziz. Arratsaldean ostarteak geroago eta zabalagoak izango dira. Egunez tenperatura igon egingo da apur bat; gaua, aldiz, pittin bat freskoagoa izango da.
- 21° DOMEKA**
- 18° ASTELEHENA**
- 17° MARTITZENA**

4. plateruena skate txapelketa

maitzak 1 eta 2



ordua: 11:00
sarrera: dohainik
lekuak: plateruena
eta landakogunea
sariak: 8500 €

antolatzaile



babesleak



laguntzaileak



KIROLAK >



Kepa Aginako

Saillkapena kontra eta egutegia alde du lurretakok. Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, zortzi eta zazpi puntuko aldea ateratzen die igoera postuetan dauden Ermuak eta Ibarsusik. Lehenengoek, lurretakoren antzera, azken txanpa samurra dute, eta ez dirudi igoera arriskuan dutenik. Bilboko taldeak, aldiz, konpromiso zail bat baino gehiago du. Egia da bata asko hutsegin behar duela eta besteak dena irabazi, baina kasu gorebeheratsuagoak urtero ematen dira futboleant.

Joan zen astean saillkapenean hurreratzeko aukera ederra galdu zuten iurretarek. Ustekabean Ibarsusik bana berdindu zuen etxean, Zamudio azken hirugarrenaren kontra; zoritxarez, lurretakok emaitza bera lortu

Lau final miraria zertzeko

zuen Uritarraren zelaian. Hala ere, eskalearentzako ogi apurrak aprobetxagarriak diren moduan, azken jardunalditik ere atera daiteke irakurketa positiboa: Ibarsusik ezin izan zuela irabazteko partidua aurrera atera.

Bilbotarren egutegia, gutxienez, errespetua sartzeko modukoa da. Asteburuan Bakio zortzigarren saillkatua bisitatuko dute. Bakiok dituen 42 puntuetatik 30 etxean batu ditu. Ondoren, Etxebarri seigarrena jasoko dute; hauek etxean adina puntu batu dituzte kanpoan. Azken aurreko jardunaldian laugarren dagoen Urdulizen zelaian jokatuko dute; zer esanik ez, partidua zaila da. Liga etxean amaituko dute Errigoitiren kontra. Hauxe da nor-gehiagokarik errazena.

lurretakok alde handia jan behar dio Ibarsusiri; zaila da, ez ezinezkoa

lurretakok saillkapenaren erditik beherako taldeen kontra jokatuko du. Aurten asko kostatu zaie etxetik kanpora partidua irabaztea; bada, kanpoko partidua biak azken bi saillkatuen kontra dituzte (Iraultza eta Basauri). Larrakozelai Gazteluzarrak (12.a) eta Lekeitiok (13.a) bisitatuko dute. Beste datu bat: berdinketaren kasuan averahea lurretakoren aldekoa da. ■ J.D.

24 Berriz Herri Artekotik kanpora

Txapelketari lehen fasetik ekin dioten gure ordezkarietatik bakarra geratu da kanpoan: Berriz. Atxondo, lurreta, Durango (zestean ere bai) eta Abadiñok aurrera egin dute.

25 Sasikoak hurrago du igoera

Sasikoak hiru puntuak batu zituen Elorrioko Buskantzen kontrako derbian. Anclak galdu egin zuen azken saillkatuaren kontra. Durangarrek hiru puntuko aldea dute orain.



Spyro Bera-Beraren kontrako partidua atzeratu egin behar izan zuten. Kepa Aginako

DRTk esperantza handiak ditu Euskadiko Kopan

Gazte mailako jokalariei nagusiekin jokatzeko aukera eman diete, eta jokaturako lehia bakarrean oso maila ona erakutsi dute

Durango Ilarduyak Euskadiko Kopari dagokion partidua jokatu du bihar, 16:00etan, Irun taldearen aurka. Teorian Irunek ez luke traba handia izan behar multzoko lidertzara bidean. Izan ere, gazte mailako hainbat gazte ari da nagusiekin, eta oso errendimendu ona eskaini dute. Horiek horrela, aurten badaitekeela uste dute: "Beti da zaila, baina taldea sasoiko dago eta finalera iristeko aukerak ikusten ditugu", dio Joan Manuel Iriondo "Txapo" DRTko lehendakariak.

Joan zen asteburuan Bera-Beraren kontra jokatu behar zuten, baina partidua atzeratu

egin zen. Super Liga Iberica-ko Euskadiko frankizia, Corsario taldea, Bera-Beraren ekimenez sortua da, eta hari zegokion partidua jokatu behar zuten Euskadiko Kopako atzeratu egin zen. Maiatzaren 17a baino lehenago jokatu beharko dute.

Emakumeak selekzioarekin
Emakumeen Udaberriko Torneo hiru garren amaitu du DRTk, Gaztediren eta Atletico San Sebastianen atzetik. Emaitza oso ona da, kontuan hartuta sei jokalarik Euskadiko selekzioarekin ibili direla. Hain zuzen Erkidegoetako Selektzioen Arteko Txapelketan

txapeldun geratu da Euskadi. Taldeko kapitaina DRTko Jone Camarero izan da.

Bestalde, Bizkaiko selektziora DRTko lau jokalarik doaz: Oier Estalao eta Imanol Apellaniz gazteetan, eta Iker Herce eta Erik Robledo kadeteetan. ■ J.D.

Multzo bi daude Kopan; lehenengo sailkatuak zuzenean finalera pasatuko dira

Berrizek etxeko garaipenei esker eutsi dio mailari

Nikasio Galanen taldeak Berriz buru gotorleku bihurtu duelako eutsiko dio Ohorezko Mailari. Joan zen astean 3-2 menderatu zuten Apurtuarte. Etxetik kanpora bost puntu bakarrik batu dituzte denboraldi osoan.

Azkenengo hiru sailkatuek galdu egin zuten, jaitsiera zazpi puntura du Berrizek lau partiduren faltan. Errenta polita da. Kanpoan joko erasokorraren aldeko apustua egin du Galanek, nahiz emaitzek ez dioten lagundu: "Hori da gure estiloa eta horrela jarraituko dugu", dio.

San Prudentzioko finalean ariko da Aspuru abadiñarra

Gaur 17:00etatik aurrera San Prudentzio Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Matienako frontoian. Gazte mailan, Asier Aspuru abadiñarrak Olaetxea amezketarrarekin jokatu du, Azpeitiko Iriondo eta Murgiondoren aurka. Murgiondo jotzailea da, baina Aspuru lan bikaina egin zuen finalerdietan, eta

sasoiko dago. Olaetxeak eta Iriondok borroka polita izango dute aurrean.

Nagusiak eta gazteak
Nagusietan Renobales alegiarrek eta Loiola elgoibartarrak Baez II.a donostiarraren eta Landiribar iruindarraren kontra jokatu dute. Lehenengoak dira faborito. Hala ere, betebeteko partidua espero da.

Azkenik, kadeteetan Elezkano eta Larunbe galdakotzarrak Gallurralde eta Jaka amezketaren kontra ariko dira. Final honek ez du faborito argirik.

Nagusien mailan Renobales eta Loiola dira faboritoak

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Guraso ikusleari

Zapatu askotan Eskola Kiroleko saskibaloia partiduetan epaile eta mahaiko lanetan jardutea jagotikastolan. Nahiz eta eskarmentu handikoa izan, epailearen lana, beti, oso gatxa eta esker txarrekoa dela aitortu behar dot; eta, era berean, txalotzekoa eta eskertzekoa dela be esan beharra dago, ze euren lan eskuzabal eta eskergagaitik jokatu ahal izaten dira ehunka partidu horreek astebururo.

Umeen partidu horreetan epaile eta mahaiko lanak egiten ditueenak, beste taldeetako entrenatzaileak, lagunak, jokalarik gazteak edo lagunzko prest dagoen edonor izaten dira. Mesedea egitera datoz, eta larunbat goiza horretan emoten dabe; esaterako, ikasten, erosketak egiten, lagunekin egoten edo lo egiten emon beharrean.

Pertsona garen heinean inperfektuak gara eta denok erratzen gara momenturen batean edo bestean. Baita epaileak be, entrenatzaile en eta jokalarien moduan. Kantxaren inguruan dagoen ikuslea legez. Nahiz eta, noizean behin, Vidorreta edo Ivanovic baino gehiago sentitzen denik be badagoen. Eskerrak holakoak ez diren askotan gertatzen!

Beraz, disfrutatu eta animatu egizu zure seme edo alabaren talde osoa. Baita epaile lanean dabilen pertsona be. Beste batzuren artean, berari esker, zure seme edo alabak saskibaloia jokalarik izateko aukera daukalako. Kritikatzea eta iraintzea baino sanoagoa da.

Skate zaleen bilgune bihurtuko da Durango

Gaur goizetik hasita, Plateruena kafe antzokian gora eta behera dabilta patinatzaile onenak



Patinatzaileek euren abilezia guztia erakutsiko dute. A.Arroita

IV. Plateruena Skate Txapelketa abian da gaur goizetik. Durango kafe antzokian egokitutako moduluetan euren magia erakusten ari dira patinatzaile profesionalak zein afizionatuak.

Bihar, aldiz, Landako Erakustazokara tokialdatuko da lehia. Han oso gutxiren eskura dagoen Mini Rampa jarriko dute. Estatu osoan ez dago horrelako arrapalarik jartzen den txapelketarik. Iazkoa baino bertikalagoa da; horrek esan nahi du patina-

tzaileak gorago iritsiko direla eta beheranzkoan abiadura handiago hartuko dutela.

Parte-hartzaileen artean azken aldi bietako irabazleak daude: Alain Goikoetxea eta Iban Rivado. ■ J.D.

Besteak beste, Alain Goikoetxea eta Iban Rivado datoz bihar

Adituarentxokoa

Asteburu honetan lortu dezake igoera matematikoa Sasikoak

Euren neurketa irabazi eta Anclak eta Kencik galduz gero, ohorezko A mailara igoko dira



Sasikoak irabazi zuen eskualdeko derbia. Judit Fernandez

Liga amaitu bitartean jokoan dauden 9 puntuetatik 4 batzea nahikoa du Sasikoak Ohorezko A mailara bueltatzeko. Elorrioko Buskantzen kontrako derbia irabazita eta Anclaren eta Kenciren porrotekin, eskura jarri zaio igoera. Asteburuan bertan eskuratu dezakete, euren neurketa irabazi eta beste biek huts egiten badute. Bestela, datorren astean erabakiko da guztia: Sasikoa eta Ancla aurrez aurrez izango dira Landakan.

Durangerrek Allerruren kontra jokatu dute gaur goizean. Anclak Goierri jasoko du bihar eta Kencik Comodoni egingo dio bisita. Hirurak irabazteko partidua dira. Dena dela, presioa norbaitek badu, hori Ancla da. Derrigor irabazi behar dute: "Gu ere irabaztera goaz, baina guretzat berdinketa bat ez da hain txarra ere", azaldu du Aitor Olivares jokalaria.

Sasikoak Anclak hartuko du azken aurreko jardunaldian

Sasikoa B ere igoera postuetan dago lau partiduren faltan

Elorrioko Buskantzen kontrako derbia gol askokoa izan zen (7-4). Lehen zatian elorriarrak atzean sartu ziren, eta Sasikoa 3-0 jarri zen markagailuan. Bigarren zatia, berriz, joan-etorrikoa izan zen, eta Elorrioko 6-4 hurre-ratu zitzairen. Azkenean, puntuak etxean geratu ziren.

Abadiñoako Lagun, Mallabia eta Presion Break ere goian dira Lehen Erregionalean

Sasikoa B ere igoera postuetan dago Euskal Ligan. Hemen ere hiru jardunaldi bakarrik falta dira. Dena bide zuzenetik badoa, urte borobila izan daiteke Sasikoa klubarentzat.

Lehen Erregionala gori-gori Aipamen berezia merezi dute Lehen Erregionaleko gure ordezkariak ere. Lau jardunaldiren faltan, Abadiñoako Lagun, Presion Break eta Mallabia Bastida taldeek igotzeko aukerak dituzte. Iturri-riondo liderrak alde handia du eta igoko da. Igoerako bigarren txartela lortzeko borroka latza dute gureek; hiru punturen barruan daude. ■ J.D.

Ieray Galtzagorri irabazle xake partida azkarretan

Bizkaiko Partida Azkarren Xake Txapelketan Ieray Galtzagorri abadiñarrak irabazi du. Joan zen asteburuan Gurutzetan jokatu zen finala, eta 67 parte-hartzaile egon ziren.

Zaldi Baltza taldeko Alberto Sardon eta Eduardo Sardon seigarren eta 25. geratu ziren, hurrenez hurren; bien artean, hamargarren, Jose Alfaro geratu zen, Durangoko Larrasoloeta taldeko xakelaria.

Taldeakako txapelketa Sestao Naturgasek irabazi zuen, Santurtziren eta Barakaldoren aurretik. Abadiño laugarren, Zaldi Baltza 11. eta Larrasoloeta 17. geratu ziren.

Taldekakoa Sestaok irabazi zuen; Abadiño laugarren izan zen

Berriz herri arteko lehiatik kanporatuta geratu da

Txapelketari behetik ekin dioten gure ordezkari guztiek egin dute aurrera, Berrizek izan ezik. Gazte mailan Gotzon Urkijok ezin izan zuen jokatu gaixorik zegoelako. Ordezkorik bilatu ezin eta partidua 22-0 galdutzat eman zuten epaileek. Nolanahi ere, Berriz kanpoan geratuko zen kadete-tan alde handia zegoelako. Bigarren urtekoen kontra jokatu zuten, eta "maila horretan urtebete asko da", Eneko Campo

Oizpe pilota eskolako entrenatzailearen esanetan.

Bigarren fasean Atxondo Usansoloren kontra ari da. Lurretak Barakaldo du arerio, Durangok Ortuella eta Abadiñoak Zaratamo. Zestean ere Durangok hurrengo faserako txartela lortu du, eta Getxoren kontra arituko da finalerdietan. Zesta-puntako bigarren finalerdia Lekeitio eta Gernikaren artean jokatuko dutena da.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Eibar B

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Iurretako -

Gazteluzarra

Zapatuan, 18:00etan,

Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

Berriz B - Ermua B

Barikuan, 17:00etan,

Berrizburun

Extremeño - Sondika

Domekan, 17:00etan,

Tabiran

BIZKAIKO KOPA

(emakumeak)

Iurretako - La Merced

Domekan, 17:00etan,

Larrakozelain

ARETO-FUTBOLA

OHOREZKO B MAILA

Elorrioko Buskantza -

Ceramicas Nogales

Domekan, 12:00etan,

Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa -

Aurrera Vitoria

Zapatuan, 17:15ean, Landako

kiroldegian

GOREN MAILA

Elorrioko Buskantza B-

Atxure Bakio

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

Kurutzlaga - Soloarte B

Zapatuan, 19:15ean,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe -

Iturritxu

Zapatuan, 15:10ean,

Elorrioko kiroldegian

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

(gizonak-jaitsiera fasea)

Tabirako - Mikeldi

Zapatuan, 17:00etan,

Landako kiroldegian

PILOTA

BIZKAIKO HERRI ARTEKOA

Durango - Ortuella

Zapatuan, 11:30ean,

Durangoko pilotalekuan

Abadiño - Zaratamo

Domekan, 17:00etan,

Abadiñoako pilotalekuan

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak

1- Amurrio.....	66
2- Portugalete.....	66
3- Elgoibar.....	66
4- Lagun Onak.....	64
5- Beasain.....	61
6- Basconia.....	53
7- Gernika.....	52
8- Leioa.....	47
9- Zamudio.....	47
10- Zalla.....	46
11- Arenas Gebxo.....	45
12- Amorebieta.....	43
13- Kulturala.....	42
14- Laudio.....	41

15- Santurtzi..... 40 |


16- Eibar B.....	37
17- Zarautz.....	36
18- Ordizia.....	35
19- Alaves B.....	32
20- San Ignacio.....	19

Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea/ gizonak

1- Urdaneta.....	11 (+118)
2- Tabirako.....	10 (+72)
3- Bidegintza.....	10 (+53)
4- Bide Bide.....	9 (+64)
5- Pamplona UPNA.....	8 (+48)
6- Mikeldi.....	8 (-20)
7- Mondragon Uni.....	7 (-25)
8- La Peña.....	6 (-43)
9- Goierri.....	3 (-181)
10- Gebxo.....	3 (-84)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi/ emakumeak

1- Bera Bera.....	24 (+511)
2- Abaroa.....	22 (+299)
3- Gemika.....	21 (+300)
4- Ardoi.....	21 (+264)
5- Gebxo.....	19 (+111)
6- Tabirako.....	18 (+221)
7- Atletico SN.....	18 (+51)
8- Obenasa.....	16 (+63)
9- Arabako EHU.....	15 (+28)
10- Irlandesas.....	11 (-240)
11- Uni. Navarra.....	10 (-69)
12- Las Gaunas.....	8 (-265)
13- Easo.....	7 (-283)
14- Artieda.....	7 (-209)
15- Astigarraga.....	4 (-384)
16- Deusto-Loiola.....	3 (-398)



Durangoko Kulturalak 44 gol sartu eta 46 jaso ditu orain arte



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA



Bizkaiko azken hartza zena 1871ko abuztuan akabatu eban mañariar batek Urkiolako Parke Naturalean

Zerua behatzeko gaueko irteera prestatu dabe Durangoko Izarra Astronomia Elkartearen laguntzagaz

Zuhaitz egunak, astronomia eta ibilbide gidatuak Urkiolan

Datozen asteetan Urkiolako Parke Naturaleko azken hartza hil eben tokira ibilbide gidatua eta zerua behatzeko gaueko irteera be izango dira.

Ekitaldi anitzen topaleku izan da azken hilabeteetan Urkiolako Parke Naturala, eta datozen asteetan be halantxe izango da. Bertako ingurunea ezagutzeko aukera izango da, eta Toki-Alai Interpretazio Zentroan be burutuko dira ekintza batzuk.

Otsaila eta martxoan Zuhaitz Egunak antolatu zitueen eskola umeekin; tartean Abadiñoiko ikasleekin, esate baterako. Abadiñoiko Udalgaz elkarlanean, Matiena eta Zelaietako ikastetxe publikoetako 86 ikaslek parte hartu eben ekintza horretan. Guztira, 6 espeziatako 90 arbola landu zitueen Toki-Alai zentroaren inguruetan. Dena dela, ekintza nagusia zuhaitzen landaketa izan arren, beste aktibitate batzuk be garatu zitueen, ingurumena zaintzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzeak. Jokoak eta

bideoen proiektzioak izan ziren bertan, besteak beste. Abadiñoikoez gainera, Aramaioko gazte-txoeak be izan eben Zuhaitz Egunean parte hartzeko aukera.

Hartzaren atzetik

Hurrengo asteetarako be hitzordua ipinita dagoz Urkiolan. Lehenengo maiatzaren 10ean izango da: ibilbide gidatua Urkiolako azken hartza akabatu eben lekura, hain zuzen be.

Goizeko 09:30ean jarri dabe hitzordua, Mañariako plazan, eta eguerdirako amaituta egotea itxaroten dabe. Ibilbide hori zailtasun handikoa dela adierazo dabe antolatzaileek, eta ezinbestekoa dela mendian ibiltzera ohituta egotea. Oinetako egokia, ogitartekoa eta edatekoa eroatea be gomendatu dabe. Eguraldia

lagun izango ez balitz, ibilbide labur eta errazagoa egingo litzaiteke. 1871ko abuztuaren 20an akabatu eban mañariar batek Bizkaiko azken hartza zena.

Zerura begira

Beste ekintza garrantzitsu bat maiatzaren 30ean burutuko da, Toki-Alai Interpretazio Zentroaren alboan dagoen Letona Korta baserrian hasita. 2009a Astronomiaren Nazinoarteko Urtea dela eta, zerua behatzeko gaueko irteera prestatu dabe Durangoko Izarra Astronomia Elkartearen laguntzagaz. Lehenik, baina, hitzaldi bat izango da Letona Kortan.

50 pertsonentzako mugatuko da ekitaldi hori, eta parte hartu gura dauenak telefono honetan ditu eskura informazioa eta erreserba: 94 681 41 55.



Urkiolako azken hartza Toki-Alai Zentroan dago disekaturik.

IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barrizatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

OPARI



Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita.
...

ANB (tartea) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira.
- Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Nagusiak zaintzeko prest nago, interina moduan edo kanpotik etorrita. Erreferentzietan. Tel.: 650 102 636

Interina lez edo kanpotik etorrita lan egiteko prest nago: nagusiak eta umeak zaintzeko edo tabernen garbiketarako. Orduka ere lan egingo nuke. Tel.: 680 302 861

Argazkilaria esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Emakumea geriatrico laguntzaile lan egiteko prest. Sukaldaritza eta informatika ikastaroak egindakoa. Tel.: 690 201 367

Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago, orduka. Tel.: 627 468 002

Neska euskalduna, kotxearekin, edozein lan mota egiteko prest. Goizeko 9:00etatik aurrera astelehena eta asteazkena izan ezik. Arratsaldetan 7:30etatik aurrera. Tel.: 692 709 384

Lan Harremanetan diplomadun neska administrari, harreragile eta idazkari moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketara lan egiteko ere. Egun osoan lan egitea nahi nuke. Tel.: 617 084 252 (Eliana)

Eraikuntzan edo soldaduran lan egiteko prest nago, baita zaintzan ere. Tel.: 686 054 186 (Jose)

Interina moduan edo kanpotik etorrita lan egin nahiko nuke. Erreferentzietan. Tel.: 636 852 059

Neska arduratsua etxeko lanetarako eta nagusien zein umeen zaintzarako prest dago. Tel.: 669 609 829

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisua salgai. Berriztatutako etxebizitza, estreinatzeko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m², 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Torreveja erdialdean, logela bateko apartamentua salgai. Sukalde frantsesa eta klimatizadorea. Los Naufragos hondartzatik 10 minutura. 63.000 euro. Tel.: 675 710 536

Elorrio. Baserria salgai, bi etxebizitza eta txokoa ditu. Etxebizitza bat guztiz berriztuta, bestea erdizka. Txabola eta 6.000 m²-ko lursaila ere baditu. Tel.: 677 502 803 edo 699 846 219

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai Errioxan, San Vicente de la Sonsieran. Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza ditu. Bista onak ere baditu. Tel.: 657 734 019

Otxandio. Pisu berria alokagai, trastelekua barne. 3 logela, komun bi, egongela, balkoia eta sukalde guztiz hornitua. Tel.: 655 726 760

Durango. Logela bat dut alokagai. Tel.: 659 749 084

Apartamentua alokagai Conilen. 3 logela, terraza, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

ERRENTAN HARTU

Abadiño. Alokatzeko pisu bila gabiltza Zelaetan. Tel.: 699 295 914

IRAKASKUNTZA

EMAN

Fisika ikaslea DBH edo batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko prest: fisika, matematika, kimika... Tel.: 615 711 225

MOTORRA

SALGAI

Renault Megane salgai. 2007ko abendukoa. Beltza da eta bost ate ditu. 2009ko abendua arte berme ofizialarekin. Diesela. 15.000 euro. Tel.: 655 712 105

Ford Galaxy 1900 tdi salgai. 130 hp, 2004ko maiatzekoa. 95.000 km. 7 jesarleku, 17-ko llantak, gurpil eta amortiguadore barriak. Margotu berria. Tel.: 636 339 971

Fiat Punto 1.200 salgai. Gasolinakoa. 1995 urtekoa da. 750 euro. Tel.: 667 746 645

Volkswagen California salgai. 2001eko abenduan matrikulatua. 140.000 km. Oso ondo ekipatua. 25.800 euro. Tel.: 656 785 827

Peugeot 306 salgai. 160.000 km. Egoera onean. 1998 urtekoa. 2.200 euro. Tel.: 679 389 783. Maxi.

Mini Cuper berdea salgai. 1991 urtekoa. 40.000 km. Extra asko. 6.500 euro. Tel.: 618 881 272. Javi.

Nissan Vanette Cargo zuria salgai. Oso egoera onean, ondo zaindua. Tel.: 689 02 46 47.

ANIMALIAK

SALGAI

Poney zuri-beltza eta behor beltza salgai. Izaera onekoak zelairako. lurretan. Prezio merkea. Tel.: 686 915 282

Txakurkumak salgai, Mastin arrazakoak. Tel.: 94 681 50 37

Asto arra salgai. Urte bi eta erdikoa da. Paperak ditu. Prezio onean. Tel.: 656 772 994

OPARI

Pedigreedun katu bi oparitzen ditut. Urte eta erdikoa. Bakunatuta. Tel.: 650 738 724

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

ANAIDI taldekoen alkartze eguna

Maiatzaren 16an. Hitzordua: 13:00etan Oruen, eta bazkaria San Antonion. Izena emateko epea: Maiatzaren 10a. Marisa: 699 872 395

LANA

ESKAERAK

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizeko 07:30etik 11:30era. Umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Kotxea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Etxetresna elektrikoan denda berrian lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 13 52

Emakumea behar da, goizetan umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 618 896 591

Berriz. Esperientziadun estetizista behar da lan egiteko. Curriculumak aurkeztu. Tel.: 94 682 68 83

Durango. Abokatua behar da gai zibil eta penalak eramateko. Derrigorra da

Zuzenbidean lizentziatua izatea, esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.765. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durangaldea. Mungiako eraikuntza enpresa batek eraikuntza-obra arduraduna behar du Durango eta Zornotzako obrerarako. Derrigorra da esperientzia izatea enkargatu moduan, segurtasuna eta lan-osasunean hezia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.766. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Zerbitzaria behar da jateke batean mahaiak zerbitzatzeko. derrigorra da esperientzia izatea, kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.823. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Iurreta. Administrari laguntzailea behar da. Derrigorra da alemaniera menperatzea (idatziz eta hitzez), kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, informatikako eta kontabilitateko ezagutzak izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.871. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durangaldea. Gasteizko enpresa batek gaztelera, ingeleza eta hinduaren interpretea behar du eskualdean aritzeko, Durangaldeko enpresa bateko langile eta indiar talde baten artean interprete-lanak eginez. Derrigorra da hindua menperatzea edo han jaioa izatea, ingeleza eta gaztelera jakitea be bai. Komenigarria litzateke esperientzia izatea antzeko lanetan. Erreferentzia: 3.092. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Berriz. Informatika-aplikazioen programatzailea behar da, gestino aplikazioen inguruko arduraria hartzeko. Derrigorra da argis eta .net-en esperientzia izatea. Lanaldi osoan eta froga epean, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Erreferentzia: 3.117. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. LH edo diplomatura eginda izatea beharrezkoa da, baita esperientzia izatea ere. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Astean zehar arratsaldez portalak garbitzeko prest nago, baita gauz tabernak garbitzeko ere. Tel.: 637 055 978 (Esti).

Emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 607 086 090

Durango neska umeak, etxeko lanak egiteko eta dendari lanetarako prest. Tel.: 639 036 653

Goizean lanaldi erdiz lan egiteko prest nago, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketara aritzeko. Erreferentzietan. Tel.: 650 610 194

Autonomo eta enpresa txikientzako aholkularitza: zergak, kontabilitatea, fakturazioa... Tel.: 655 725 252

Eraikuntzan, margolari laguntzaile moduan, lorezaintzan edo artotz moduan lan egiteko prest nago. Tel.: 696 356 551

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

BESTEAK

SALGAI

Karro denda salgai. Oso ondo hornitua eta zaindua. Tel.: 658 759 264. Ima.

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono salgai. 120 euro bakoitza. Tel.: 660 085 720

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeke aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etzerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zmkoinoia. Eskuma estriatua eta ezkerre lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berriku-sia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

Egoera onean dagoen CD erreproduzitzailera erosiko nuke. Tel.: 625 92 10 57

BEREZIAK

'Bertoko' garagardoaren txapa erosi edo aldatzeko prest nago. Norbaitek izanez gero deitu. Tel.: 695 452 194

Tintinen euskarazko kolezioa amaitzeko ale bat falta zait eta erosiko nuke. 'Tintin urre beltzaren lurraldean'. Tel.: 625 921 057

CD erreproduktore baten bila nabil. Egoera onean. Tel.: 625 921 057

Biolin eta biolontxelo taldea ezkontzetan jotzeko prest. Errepertorioa aukeran eta prezio onean! Tel.: 635 746 176

Munduko garagardo ezberdinen botilen txapa bilduma osotzeko txapak aldatzen ditut. Tel.: 695 452 194

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest daude. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorekin garbiketarako egiten ditut. Orduko kobratzen ditut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Denetarik margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreproduzioa eta marrazkiak zureko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Desbrozadorekin garbiketarako egiten ditut. Orduko kobratzen ditut. Tel.: 650 181 443

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzeko nahi badozu deitu zenbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Fardoak. Fardoak egiten ditugu. Interesatuak deitu dezala ondoko telefono honetara: Tel.: 615 782 247

Gortinak, koltzak, etxeko osagarririk... josten dira. Etxeko arropen konponketak ere egiten dira. Partikularrentzat. Tel.: 675 707 275

INMOBILIARIARIK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baseria salgai.
- Errentenxu: Adosatua eraikitzen.
- Errentenxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekotea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriiuzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Errentenxu: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 komun. Balkoia.
- Ezkurdin: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentasa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Herriko Gudari kalean: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia. Garajea eta ganbara.

ISD
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
- 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarrekotea etxebizitzak eraikitzen. 1.000 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela berriztatzeko.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durangaldea: Baseri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabiloi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeke aukera.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta 2 terraza. Garajea eta ganbara. Bizitzaren sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa. Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- Madalena: 135 m2-ko etxebizitza. 4 logela, egongela, jangela, sukaldea, despentsa, 2 komun eta bainugela. Balkoia. 2 ganbara eta garaje bikoitza itxia.
- Herriko Gudari kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua.

TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.

- Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean. Bizitzaren sartzeko prest.
- Murueta Torre: Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **Balkoia.** Garajea eta trastelekua.
- Txibitanen: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.
- Tabira: Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m2-ko lorategia. Garaje itxia.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea trastelekuarekin eta ganbara. Eguzkitsua.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. inmoetxeto@gmail.com
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

- Franzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazagaz. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 2 logela. Erdi berria.
- Tronperri: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Astekin: Estreinatzeko. 2 logela. Ganbara eta garajea. Terraza.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegi: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1. go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria.

IURRETA

- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza. Bizitzaren sartzeko prest.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. 200.000 €.

ABADIÑO

- Estreinatzeko. 1 eta 2 logelako etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde jantzia. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.
- A. Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.

LOKAL KOMERTZIALAK

- Komentu kalean: 80 m2. Alokairuan. 1.000 €/ hilero.
- Barrenkalen: 40 m2. 93.000 €.
- Ibaizabal: Alokairuan. 60 m2-tik 100m2-ra.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.
- F.J. de Zumarragan (Madalena): 75 m2. Salgai.
- Iparragirren: 35 m2. 60.000 €-tan salgai.
- Landakon: 150 m2. Salgai edo alokairuan.
- Iparragirren: 35 m2. 60.000 €-tan salgai.
- Landakon: 150 m2. Salgai edo alokairuan.

ETXEBIZITZA ALOKAIUAN

- Berria. Estreinatzeko. Garajearekin. 750 €

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Esk. DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxia. Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarrekotea apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentasa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia. Guztiz berria. Estreinatzeko.

IURRETA


- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

		* Irudiko planeta	▼	Apur	▼	Pl., usain txarra
		Zut		Pl., harribitxi mota		
		▶		▼		▼
		Ahamen	▶			
		Egitekoak				
Ezin fidatuzkoa	▼	Une	▶			
Piparen edukia		Orinez beteak	▼			
▶						
Agi dirudienez	▶			Kontso-nantea	▶	
Gizon izena				Silikato naturala		
▶				▼		
O batez, giltza	▶			Kortezubiko auzoa	▶	
Joan den urtea				Zabor		
▶				Toka, zaizu	▶	
				Leku hartara	▼	
Ulisesen irla	▶					Ipar Euskal Herrian, izu
Arnas ezak hilak						
▶				Naizen hau	▶	
				Oinarrizko eadri	▼	
Gipuzkoako herria	▶					
Jateko pasta						
▶						

SUDOKU >

1

2	7	8	9	4	1
3		2	5		9
5	8	7			6
8			6		7
6	7	4		1	
1	2	9	3	5	8
	6		8	7	2
4	3	2	7	9	
	1	5			3

2

		4	7	1		5
1	9	3	2			
5			6			1
	6					
1	8			3		7
5	4			2	8	
			7	4		
				1		3
9						6

3

9	2	5	1	4	3	7	6	8
7	4	6	2	8	5	1	9	3
8	3	1	6	9	7	4	5	2
3	5	7	4	1	2	8	6	9
2	1	8	5	6	3	4	7	
4	6	8	7	3	2	5	1	9
5	7	2	9	6	4	8	3	1
1	6	3	5	2	8	6	7	4
6	8	4	3	7	1	9	2	5

4

7	2	1	5	9	4	6	3	8
4	8	3	6	2	7	9	1	5
9	5	6	3	1	8	7	2	4
1	4	2	9	7	3	5	8	6
6	7	5	4	8	2	1	9	3
8	3	6	1	6	5	2	4	7
5	9	8	7	4	1	3	6	2
3	1	4	2	5	6	8	7	9
2	6	7	8	3	9	4	5	1

I	O	R	R	A	K	A	M
Z	L	U	A	R	A	Z	•
I	N	•	K	A	O	I	•
•	A	V	A	H	I	•	•
K	I	A	Z	•	Z	A	I
A	M	O	•	K	A	G	•
S	A	V	A	R	A	K	Z
T	•	Z	E	N	E	D	•
A	R	A	T	A	P	I	P
R	•	L	I	P	•	F	•
I	X	O	P	•	•	•	•
K	•	U	T	Z	•	•	•
•	P	•	J	•	•	•	•

ZOZKETA >

Badaukagu ANBOTO astekariak Eusko Labelekin batera zotz egiten dauen otzararen lehenengo saritua:



Irene Etxebarria Garate (Abadiño)

ZORIONAK ETA ON EGIN!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-
Santa Ana 6, 48200 durango



Paul Arteaga Etxebarriak apirilaren 25ean lau urte egin zituen. Zorionak eta besarkada handi bat, ahizpa June, aita, ama, aitiba, amama eta osabaren partez.



Ane Murgoiobeñak maiatzaren 8an zazpi urte egingo ditu. Zorionak, printzesa, eta besarkada handi-handi bat familia osoaren partez.



Zorionak Maddi! Datorren domekan, maiatzaren 3an, 11 urte egingo dozuz. Mosu handi bat, etxekoen eta batez be Peio eta Larraitzen partez.



Gontzalek apirilaren 28an 7 urte egin zituen. Zer mutil handia! Eta **Lucia**, barriz, apirilaren 19an bataiatu genduen. Etxekoen partez, mosu handi bat biondako.

HOROSKOPOA >



Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Zuk sinestu ez arren, zurrunga egiten dozu. Onartu egizu eta aurkitu erremedioren bat, inguru-koak gogaitu baino lehenago!



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Eguraldiak hainbeste baldintzatzen deutsu asteburua? Gorbeako artzainak baino prebisino hobeak egiten dozuz dagoeneko.



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Zure etxean zain dagoz hautsak eta hautsak ez direnak. Aprobetxatu asteburua etxea apur bat garbitzeko.



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Gogoan izan, hartu-emonekoa ez bada, maitasunak min egin leikela sarritan. Ipini egizuz hankak lurtean, badaezpada be.



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Lanak burukominak ekartzen ditu, baina baita onurak be. Ipini balantzan alde positiboak eta negatiboak.



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Arazoak eta arazoak. Beti arrazoi bila. Ondo dago zentzuduna izatea, baina gorputzari be itzi behar jako askatu eta bere bidea egiten.



Libra
irailak 24 - urriak 23

Ez itzi joaten trenari, beharbada azkena izan leiteke-eta. Hori bai, badaezpada hartu egizu joan-eterriko txartela.



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Zergaitik lotsatzen zara hainbeste? Geure buruari be barre egiten ikasi behar dogu! Txisteak ez dira besteen gainean bakarrik egiten.



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Bakotzak bere bizimodua eraiki behar dau, sortuz eta borrokatuz. Aste honetan hartu egizu hausnar-ketarako tartea.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Ezetz dinozu behin eta berriro, baina zure itxurak arduratzen zaitu. Denok begiratzen deutsagu ispiluari.



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Amore emoteak balio ete dau zeozterako? Ametsak gatx ikusi arren, saiatu ezik ez dozu inoiz jakingo bete leitekezen ala ez.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Illuntasunetik ateratzeko, egin zaitetz argiaren lagun. Jarraitu argiak markatzen deutsun bideari, eta ez zara galduko.

EUSKO LABELA >

Eztia eta Euskal Esnea: oso erraz uztartu leitekezen produktuak



Eztia eta Euskal Esnea elikadura-propietate ezin hobekin hornitutako produktu osasuntsuak dira.



Eztiak eta Euskal Esneak araudi zorrotzak betetzen ditue.

Euskal Esnea

Eusko Label markaren pean merkaturatzen den esnea Euskadiko ustiatetik onenetatik dator, eta indarrean dagoen Europako Araudiak exijitzen dauena baino kalitate-maila altuagoa dauka. Esne gordinari ultrapasteurizazio prozesu terminiko ezartzen joko, elikaduraren nahiz zapoaren ezaugarriak gorde ditzan, bitamina eta aminoazido nagusiei eutsita. Bere ezaugarri nutrizionalak direla eta, behi-esnea elikagai osatuenetarikoa da.

Behi-esneak kalitate oneko proteinak ditu. Aberatsa da kaltzioan, B taldeko bitaminetan eta, neurri txikiagoan, A, D eta E bitaminetan. Substantzia horreek oso garrantzitsuak dira gizakia gorputzaren garapenerako eta hezurren higadura saihesteko. Kaltzio asko daukanez, esnea kontsumitzea oso onuragarria da. Bereziki gomendagarria da haurrentzat, haurdun dagoen emakumeentzat eta adineko pertsonentzat.

Eztia

Eusko Labela daukien eztiak gordinak, freskoak, kalitate eta purutasun handikoak dira, jatorri botanikoaren arabera ezti mota guztien kasuan; hala nola, lore-eztia, akazia-eztia, txilar-eztia, basoko eztiak...

Gaur egun, ezti horreen merkaturatzeari buruzko Europako araudia oso zorrotza da.

Ezelako pasteurizazio-prozesutik pasatzen ez direnez eta ezti gordinak direnez, ezaugarri biologiko eta elikatzaile guztiak gordetzen ditue.

Bere elikadura-propietateez gainera, eztiak osasunarentzat oso onuragarriak diren beste ezaugarri batzuk daukaz: gibela-ren funtzioak dinamizatzen eta indartzen ditu, bihotza suspertzen dau eta hesteen funtzioak hobetzen ditu.

Efektu lasaigarria dauka, eta oheratzerakoan hartuz gero, lo egiten laguntzen dau. Horretaz gainera, propietate antiseptikoak daukaz eta eztarriko minarentzat oso egokia da.

Ezti-izozkia

OSAGAIK:

- Litro 1 Euskal Esne
- 10 cl esnegain likido
- 220 g ezti
- 10 gorringo
- 50 g azukre

Esnea eta esnegaina irakin, gainerakoa nahasten den bitartean. Hori guztia krema ingelesa balitz legez prestatu, eta egosaldia amaitzeko urezko eta izotzeko maria bainu batean sartu.

Intxaur garrapinatua

OSAGAIK:

- 125 g intxaur
- 250 g ur
- 250 g azukre

Osagai horreek eltzete batean su bizian berotu eta gelditu barik eragin. Azukrea nahiko urtu denean, intxaurrak sutatik kendu eta atzera sutan jarriko doguz barriro, kristal itxurako kolorea hartu daien.

Azkenik, silpat baten barruan sartu eta zurezko bi koilaragaz intxaurrak bereizi egingo doguz aske gera daitezen.

On egin!

ARDAOAREN NEGARRA "Tempranillo mahats barietatea"



Mikel Garaizabal Enologoa

Tempranilloa da Euskal Herrian gehien landatzen den mahats-barietatea. Guztira, 11.500 hektarea Arabar Errioxan eta beste 8.000 hektarea inguru Nafarroan. Arabar Errioxan landatzen diren mahats-barietate guztien ia % 90 hartzen dau, eta Nafarroan % 40. Mahats-barietate hau barietate auktotona da, nahiz eta jatorria ezin den zehaztu, esan bai esan daiteke Errioxagaz lotura handia daukala. Azken urteotan, bere fama geroago eta handiagoa da, eta geroago eta zabalduagoa dago mundu osoan. Tempranillo hitza entzuten dogunean, denok identifikatzen dogu mahats beltzagaz, baina mahats beltzagaz gainera, Tempranillo zuria be badago. Azkenengo hori orain gitxi onartu dau Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuak.

Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA TRAIÑABARREN, 29.MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA ZALDUASOLO PLAZA, 8

Olxandio

- GAZTANETA HARATEGIA ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA ANTZO ESTEGIZ KALEA, 1

- INAKI HARATEGIA SASIKOA KALEA, 10

- OKA HARATEGIA ANDRA MARI, 3

J.F.

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu.



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Santana, 6
48200 Durango

Hilera azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna; pote 1 "Ibarrako Piporrak"; pote 1 Ezti, Idiazabal gazta; botella 1 "Bizkaiko Txakolina"; botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa"; botella 1 Arabar Errioxako Olio Berrina; Txakalinesko bonbol-kutxa 1 eta 30Eko txantel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bilatuz edo Euskal Baserriko Ollakoaz trukatzeko.



Jasone Agirre
Kazetaria

Nire gelako komuna

Gustuko dudan edo niretzako esangurarik duen leku bat aukeratu eta bertan argazkia ateratzeko gonbita egin didate Astola aldizkarikoek. Gero, azaldu egin beharko dut zergatik aukeratu dudan. Eta egia esateko, boteprontoan, nire gelako komuna etorri zait burura. Zenbat momentu baketsu, neu bakarrik! Gustuko ditut azken aspaldi honetan hara egiten ditudan ihesaldi furtiboak. Komunera noan aitzakiarekin, liburua hartu eta hiruzpalau orrialde irakurtzen ditut, umeak neure bila etorri arte. Gogoan ditut komun horretan egin izan ditudan negarraldiak, eta momentu onak, kontatu ezin badira ere.

"Gauza bat da garena, beste bat izan gura duguna eta beste bat... zer garen esaten duguna"

Baina komuna aukeratzeari ez diot dotore iritzia, eta are gutxiago Gerediaga Elkartearen aldizkarirako bada. Beraz, kanpora. Eta burua jaioterrira, Abadiñora joan zait, eta han haizetara, Astxiki eta Atxarte artean dagoen berdegune gozo horretara. Urteetan begiratu izan diot etxeko leihotik, baina ez naiz sekula bertan egon. Argazkia han ateralitekeela esan didate, baina ez dut joan gura, jakin badakidalako bertara helduta ez dela urrunetik ikustea legetxe izango.

Eduki ezin direnak ederragoak beti. Beraz, beste lekuren bat behar. Eta hark esan zuena gogoratu dut: gauza bat da garena, beste bat izan gura duguna, eta beste bat... zer garen esaten duguna.

"Bazekieen hemen nintzela eta edozein unetan etorri izan jataz"

Tartean aldrebesen bat izaten den arren, bezero oso onak izan dituela nabarmendu dau Emilik

Familiaren tabernan fzegoen denda Emili mostradorearen atzean hasi zenean, amamak aginduta. Ordutik 45 urte dira. Oraintsu itxitako dendak, baina, 38 urte egin ditu. Pena handiagaz itzi dau, urte guztiotako txutxumutxuak han gordeta.

Makina bat urte eta ordu egin dozu dendan.

Tabernan eta dendan jaioa naz; beti izan dogu denda. Amamari lagunduz hasi nintzen —jostuna be bazen-eta— 16 urte ingurugaz, gero amagaz eta, azken urteotan, neure ardurapean. Mostradorean 45 urte egin ditut.

Ixteko ordua heldu da, penagaz?

Pena itzelagaz. Sartu-irten asko, hartu-emon handia eduki dot jentegaz, eta hartu be asko egin dot. Tartean beti dago batenbat, baina, bezero oso onak izan ditut, eta uste dot ondo moldatu nazela. Arratsaldez be, piloa etorri jataz edadekoak ordubetea pasatzen, euren penak azaltzen... baina, ni oso pozik! Uste dot jentekak be penagaz hartu dauela. Jakin dabe hemen egon nazela eta edozein unetan etorri jataz. Halan be, esan deutset bisita egitera etortzeko!

Psikologo be egin dozu orduan...

Ba bai! (barrez). Ama be nigaz egoten zenean, beregana etortzen ziren berba egitera, laguntzera...

Zelan daroazu jubilatzea?

Ibiltzea gustetan jat, eta pasiorako aprobetxatuko dot. Ordu batzuk bete behar! Bildur apur bat badeutsat horri, baina, trankil nago.

Hainbeste urtean, zenbat krisi?

Aurretik egon ei dira, baina oraingoa lainekorik ez dot sumatu. Jentea hilaren azkenerako larri dabil. Batzuen a puntatuz, besteena kobratzean jasota... jardun dogu. Lehen zorrak zegozen, orain be bai.

Ordaindu barik joan jatazuz...

Bai, ordaindu bakoak badaukadaz ordaindino. Ondo bizi direnak, gainera, eta horrek ernegatzen dau. Letxuga 60 zentimoan karu dodala etorrita, kafea 1,20 euroan merkea ete den galdetu izan dot! Base-ritarrek pena emoten deuste.

Kontua zabaltzea, garai bateko kontua...

Amamaren sasoiari halan zen; egunean hartu eta astean behin ordaindu. Asko ez dela izan dot hilean ordaintzen ebana, baina ezetz esanda egon naz. Aurreratu egin behar da, eta ezin.

Denda itxita, etxean edo tabernan galdetzea behar izan da.

Piloa etorri da

bai, eta denei zabaldu deutset atea! Oraintsu be etorri jat inor zezoz ahaztu dauela-eta. Baina pozik, ez pentsatu! Sasoi batean tabernan zerbitzari be ibili nintzen.

Esklabua da denda?

Apur bat. Baina, dena erraz eduki dot; sukaldea eta gela be bertan daukadaz-eta.

Denetarik saldu izan dozu.

Bai! Jakiak, garbitzekoak, abarkak, hariak, koadernoak, arkatzak, orraziak... Olioak, azukrea, arroza edo kafea, kiloak, libra zein behar beste saldu dogu, soltean; 25 litro inguruko olio bidoiak ekartzen genduen. Okindegiak, fruitu-dendak... dagoz orain, espezializatuagoak.

Saltoki handiek be kalte egingo eutsuen.

Inguruan dira bi. Ez dogu lehia-tzerik; gitxiago bakarrik egonda.

Kontuetarako beti arkatza?

Betidunik, eta fidatu dira. Erraza-ego egin ditut kontuak arkatzagaz, inoiz kalkulagailua erabili arren.

Denaren barri izaten da holako dendetan.

Bai, baina dena hementxe geratu da eta geratuko da gordeta.

Gerediagako kartak be jaso dozuz.

15 urte dira ez dela holan egiten, baina, beti ezagutu dot hori. Etxe alboan izten zituen postariak, eta bakotxak berea hartzen eban edo, bestela, neuri galdetzen eusten.

Emili Amezua

45 urte egin ditu dendaren mostradorearen atzean

65 urte bete eta jubilatzeako ordua etorri jako



• **BATXILERGOAK**
• **GOI MAILAKO ZIKLOA "HAUR HEZKUNTZAKO TEKNIKARIA"**

emaitza akademiko ezin hobeak!

Hobetuz programako ikastaroak:

- Ipuin kontaketa tailerra
- Haur masaje ikastaroa (heitzalle zein gurasoentzat)
- Tresna informatikoak erabiliz haur hezkuntzarako material sorkuntza

aurrematrikula zabalik! etor zaitez gu ezagutzera

ibaizabal
ikastola kooperatiba

Intxaurren, 54 Durango
Tel.: 94 621 58 77 • 48200 Bizkaia
ibaizabal@ikasibai.com • www.ibaizabalikastola.net

